

# Berriketan


Debako herri aldizkaria

274. alea - 2022ko ekaina

**Maddi  
Astigarraga**

Zientzia-ilustratzailea


**Ilustrazioen bitartez  
ikusezin dena ikusgarri egiten**



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**EUSKAL OKELA**  
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO  
EUSKO LABEL



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**


Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gaufan trazoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**BOHÈM**  
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA  
T 608 135 775  
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f i



**ARENA BAR**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

**Zumardi**  
pentsioa

Tel.: 688 800 619  
info@pensionzumardi.com  
www.pensionzumardi.com

f i

**ORAIN**  
ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba



**LABATAI**  
taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
06:00 ETATIK AURRERA  
PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
ETA PLATER KONBINATUAK,  
EGUN OSOAN ZEHAH

274. alea - 2022ko ekaina

# AURKIBIDEA




**ELKARRIZKETA | 6**  
Italian bizi den  
Cristina Lahoreri  
elkarrizketa *Debarrak*  
Munduan atalean



**ELKARRIZKETA | 12**  
Aitzuri abesbatzako  
Xabier Carrillo  
zuzendariarekin  
solasean



**GURE GIRO | 14**  
Askotariko kultur  
emanaldiak  
Gure Giroren  
bigarren edizioan



**GEHIGARRIA | 17**  
Debabarreneko  
turismo eskaintzari  
buruzko gehigarria  
prestatu du DKT-k



**ALBISTEA | 29**  
Herritarron  
sormen-emaritrik  
edateko prest,  
Iturri Ondoan

## Berriketan

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)



### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Martin Lores

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-200

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

### LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALA



Herkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Herkuntza Politikarako Saiburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### OHARRA:

**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Informatika  
Tresneria  
informatikoa



Elektronika  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**SALMENTA, ALOKAIRUAK, ABOKATUA**  
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA  
Tel.: 943 19 22 63  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**ieraenea**  
eskolanda  
"maile ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Tel: 943 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)

**k**  
kutxabank

**ME ENDAÑETA**  
muebles altzariak



**Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria 3000m<sup>2</sup>**

**Itziaroko gaina**  
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01  
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)  
[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)  
[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)



*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197**



**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera.

## Izaskun eta Santa Katalina

Debako institutuan egokitu eta lehen klaseetako batean, *por el este* erantzunaren bila zebilen irakasle berriari, herri honetan eguzkia Santa Katalina gainetik altxatzen zela irakatsi zion ikasle batek, artean bere 13-14 urterekin. Berez. Izenagatik galdetu balio bezain natural. Gustatu zitzaion seinalea berriari. Institutuak ikusmira ezin ederragoak zituen eta irakasle-klaustroan ingeles-irakasle guapa bat zegoen.

Hamahiru urteko ezagupidea egin dugu harrezkero, Izaskun. Ez dira gehiegi, beharbada, baina balio duena kalitatea dela erakutsi diguzu azken egunera arte. Gaurtik, zergatik ez dakidala, bizpahiru momentu argitzen zaizkit oroitzapenen artean: zigarro

bat erretzen ari zara Txomineneko bal-koian, eguzkitan, dotore, ikasturte-despedidaren batean. Ralph, zeu eta hirurok inondik ezagutzen ez dugun Luke Armstrong baten kontzertu batera joan gara Donostiara, larunbat gauari kolorea ematearren. Irakasle-klaustro batean ikasle bat babesten jardun zara, ikasle baino lehenago gizakia dela gogorazita. Gizakia. Hiru, ez luzatzeko.

Zeure azken mezua "Disfrutau!" daukat telefonoan. Ikasleekin tirolinaparke batera joan ginen maiatzaren amaiera aldera, eta erantzun hori itzuli zenidan. Egun hartantxe, iluntzean, operara joan nintzen. Musika ederra bezain amaiera latza zeukan eta ez nizun ezer aipatu. Gaur, berriz, zera

kontatu nahi dizut: badu opera horrek zati oso ezagun bat, *un bel di vedremo*, "egun eder batean ke-haritxo bat ikusiko dugu" hasten dena. Ke-hari hori bi lagun berriro elkartzeko itxaropenaren sinboloa da.

Joan zara, Izaskun. Borgesek "*nadie sabe de qué mañana el mármol es la llave*" dio. Ez dugu horretan asko sinetsi, ezta? Baina zeinek esan. Pentsa ezazu gu garen bi pertsona korrienteok konfundituta gaudela. Badagokio gizakiari asmatzea bezainbeste ez asmatzea. Maite zaitugula esaten dizugunean, ordea, eguzkia, goizero, Santa Katalina gainetik aterako dela bezain seguru esaten dizugu. Eta horretan, jakina, ez gara konfunditzen.

*Enrike Izagirre*

## Zaintzen duen herria

Urteak daramatza Euskal Herriko mugimendu feministak zaintza-lanen errekonozimendua erreibindikatzen. Zaintza-lanek ordaingabeak edo gaizki ordainduak eta lan-balditza miserable-dunak izaten jarraitzen duten bitartean, emakumeek jarraituko dute lan hori egiten, prekarizaziora kondenaturik.

"Zaintzak erdigunera" lelopean abiatu ditugu ehundaka manifestazio, mahai-inguru eta tailer azken urteotan. Erdigune politikora, batetik, hedabideen eztabaidetara eta gobernuen lehen-tasunetara. Eta erdigune fisikora, bes-

tetik, etxeko pribatutasunetik herriko kale eta plazetara.

Herri zaintzaileetan, espazioak malguak izan behar dira, pertsonen beharretara egokitzen direnak, eta ez pertsonak espazioaren baldintzetara. Herri zaintzaileetan, pertsonak segurtasuna hauteman behar dute, espazioak ondo seinaleztatuta eta argizatuta daudelako. Herri zaintzaileetan, ezin dira auzokoak kanporatu gehiegizko alokairu-kontratuengatik, espekulazio-agatik eta jabetza pribatua bakarrik zaintzen duten araudiengatik. Herri

zaintzaileetan, pertsonak askotarikoak garelako onartzen da, adin, jatorri, gaitasun, genero, erlijio ezberdinetakoak.

Deba eta Itziar herri zaintzaile bila-katzeko bidean, genero ikuspegitik hiri-diagnostikoa egiteko prozesu parte-hartzailea jarriko dugu abian datozen hilabeteetan, Dagigun ekimenaren baitan. Horrexegatik, hemendik gutxira iragarriko ditugun ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztet, guztion artean herri zaintzaileago bat eraiki dezagun.

*Amaia Arotzena*

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**Higiezin Zerbitzuak**  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

## XXXV. Antzerki Astea

Hogeita hamabost urte dira Goaz Antzerki Taldeak lehenengo Antzerki Astea ospatu zuenetik, azkar esaten da. Udalaren babesari eta taldekideen gogoari esker, XXXV. Antzerki Asteak girotu zuen herria maiatzaren 20tik 29ra bitarte.

Aurten ere ederra izan da. Antzerki tradizionalagoetatik bertizailenentara, umorea, poesia, musika, magia... proposamen desberdinak ikusi ditugu. Taldearen apustua sorreratik izan da euskarazko antzerki profesionalaz gain amateurra ere sustatzea, eta eman ditu bere fruituak beste behin ere.

Berrikuntzaren bat ere izan dugu. Osioko Goaz-en lokalari erabilera eman zaio aurtengo edizioan. Badakigu irisgarritasunari dagokionez traba izan dela antzerkizale batzuentzat, herribildutik atera, eskai-

lerak igo, egurrezko aulki tolesgarri horietan eseri..., baina izan du bere xarma. Goaz taldearen etxea ezagutarazi eta antzerkia egiteko espazio atsegina bat eskaini zaio herriari, Deban antzeztoki egoki bat egon bitartean. Hala, Tolosako Katiuska taldearen *Armiarma* antzezlanak eragindako barreak entzun ditugu bertan, baita Goaz Antzerki Taldearen *Bilakatu* lanak sortutakoak ere. Azken honek, bereziki, harrera ona izan du ikusleen artean; herrian indartsu datorren antzerki taldetxo bat ikustea pozgarria omen da.

Harrera ona izan dute erakustaldiek. Goaz taldearen lokalean, pilotalekuan, tabernetan, Kultur Elkartearen zein Itziarko Burugorri giro bikaina izan da, eta datorren urtean ere hala izan dadin lan egingo dugu.

*Goaz Antzerki Taldea*



IRAIA AGIRREZABALA

### Bolondresak

Behin baino gehiagotan entzun izan dut "Deban ez dago ezer" esaldia eta sutu egiten naiz. Lepoa jokatu nuke hori diotenak ez duela herriko ekintzen antolaketan eta prestaketan parte hartzen. Niri herrian gauza asko antolatzen direla iruditzen zait eta tarte hau aprobetxatu nahi dut hauetarako guztietarako ezinbestekoa den bolondres lana balioesteko.

Zenbat kirol elkarte euren ekintzak aurrera eramaten, zenbat musikari eta dantzari herriko festa-egun eta jaialdietan herria girotzen, elkarte gastronomikoak txorizoa eta salda banatzen, erraldoi eta buruhandiak, Antzerki Astea, umeen krosa, paella lehiaketa, Caritasek ematen duen laguntza, Gaztetzeko ekintza anitzak, Debarren Egunaren bezperako marrazki lehiaketa eta karretoiak, festetako hainbat egun (Umeena, Marinelena,...) eta ekintza, txosnak, *Begiradak*, guraso elkarteak, Kolore Anitz taldeak antolatutako jolasak, merkatarien elkarte herriko saltoki txikiak bizirik irauteko lanean, igande batzuetako zine-emanak, Animadeba, Mintzalaguna, *Berriketan*-eko zutabegileak, etab. Niretzat hau aberastasuna da.

Herrian zerbait behar denean, segituan jotzen da talde horiengana laguntza eske. Eskatzea libre da, baina eman ere egin behar da elkarte eta bolondres horiek mantentzeko, bai Udaletik eta baita herritarren aldetik ere, gustura hartzen baitira erreleboa ematen dutenak.

Bolondres izaera desagertzeko arriskuan dagoela iruditzen zait eta horrekin hainbeste ekintza galdu daitezke... Mantendu nahi izanez gero, guztion artean lor dezakegu.



## Uztailaren 1ean egingo dugu Kolorez Blai udalekuen inguruko bilera gurasoekin

Uztailaren 4an hasiko dira Kolorez Blai udalekuak, uztaila kolorez betetzeko prest dauden begiraleen eskutik. Lehen txanda hilaren 4tik 15era bitartean izango da (2014-2016 artean jaiotakoek hartuko dute parte); bigarren txanda, aldiz, uztailaren 18tik 29ra (2010-2013 artean jaiotakoentzat). Udalekuak asteleheneetik ostiralera egingo dira, 9:30etik 13:00etara.

Aurten 190 haurrek parte hartuko dute udalekuetan, uste baino askoz gehiagok. Izena eman zuten haur guztiak onartuak izan dira eta horrek asko poztzen du begirale taldea.

Aurten, berriekin emango diegu hasiera udalekuei, izan ere Itsaso Iciar arituko baita koordinatzaile lanetan. Lantaldea 13 begiralek eta koordinatzaileak osaturikoa izango da.

Urtero bezala, udalekuen atarian, guraso bilera egingo dugu; bertan, elkar ezagutu eta egitasmoaren inguruan sor daitezkeen zalantza eta galderak erantzuna ematen saiatuko gara. Bilera datorren uztailaren 1ean izango da, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Elkartearen. Bertan ikusiko dugu elkar!

Badator, bagatoz... bueltan da!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*

Debarrak munduan

## Cristina Lahore

Barne-diseinu ikasketak Gasteizen egin ondoren, Erasmusak Italiara eraman zuen Cristina Lahore orain bost urte. Bertan bizi da gaur egun, Brescia herrian, Milanetik ez oso hurrun, eta argiztapen-diseinatzaile lanetan dihardu. 25 urte ditu, eta hamaika afizio; horien artean, bidaiatzea du gustuko: "Orain dela gutxi deskubritu dudan afizioa da. Betidanik gustatu izan zait, baina azken bost urteotan aukera asko izan ditut Erasmusari esker". Ez da damu Italiara joateko erabakia hartu izanaz. Handik erantzun die *Berriketan*-en galderei.

### Non zaude gaur egun? Zer nolatan?

Orain dela bost urte Brescia izeneko hiri batean egin nuen Erasmus. Milanetik 45 minutura dagoen hiri bat da Brescia, Donostia baino pixka bat handiagoa, eta aukera asko dituen helmuga da; Dolomitak eta Italiako laku handienak gertu dauzkan leku berezi bihurtu da niretzako. Erasmus bukatu eta ikasketetako praktikak hemen egitea erabaki nuen; eta, esperientzia horri esker, hainbat lan aukera izan ditut.

### Zerk eraman zintuen horra? Zergatik Italia zehazki?

Diseinu munduari dagokionean, Italia helmuga onena zela iruditu zitzaidan. Nire lagun onenatariko bat asko tematu zen eta, ondorioz, onartzea erabaki nuen. Egia esan, ez nekien halako esperientzia bat bizitzeko prest ote nengoen, baina gaur egun nire bizitzan hartutako erabaki onena dela iruditzen zait.

### Zertan zabilta orain?


Hainbat estudiotan lan egin ondoren, argiztapen-diseinatzaile bezala ari naiz lanean, mundu mailan garrantzitsua den enpresa batean.

### Espero zenuen bezalakoa da guztia? Zerk harritu zintuen?

Ez nuen inoiz pentsatuko nire bizitza beste herrialde batean egin ahal izango nuenik. Beti gustatu izan zait bidaiatzea, baina ez nuen inoiz irudikatu beste leku batean bizitza berri bat hasi eta bizi-proiektu berri bat sortzea.

Beste leku batean zerotik hasteko izan dudana gaitasuna da harritu nauen lehenengo gauza; ez da erraza, baina esperientzia bizi eta gero, bizi beharreko esperientzia bat dela uste dut, pertsona moduan gauza askoz konturatzen zarelako, zure mugak non dauden ikusi eta munduaren aurrean zu bakarrik egonda erabakitze gaitasuna garatzen duzulako.

Bestalde, hiri edo herrialde bezala, leku guztietan gertatzen



den moduan, hemen denetarik dago, baina mugarik gabeko herrialdea dela iruditzen zait. Diseinu-mundurako leku perfektua dela esango nuke, lan-aukera interesgarriak daudelako; eta, maila pertsonalean, besteek pentsatzen dutenak axola gabe bizitzeko aukera dagoelako.

### Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Oso txikia, egia esan. Bost urte hauetan hemengo lagunak egin ditut eta denak dira bertakoak. Beraz, italiara da orain erabiltzen dudana hizkuntza bakarra.

### Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txirikik edo?

Hizkuntza bakarra italiara da, baina Euskal Herrian bezalaxe, dialekto edo hizkera desberdinak existitzen dira. Ez da gauza erraza horiek ere ikastea, baina horretan gaude!

### Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Seguruena Bresciara, pentsatu gabe, familia eta lagunak ekarriko nituzke, eta Debara... hemen bizitako esperientzia, ikasitako guztia eta mutil-laguna eramango nituzke.

### Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez zait gustatzen horretan pentsatzea, Deba asko botatzen dut faltan eta ziur nago etxera itzuli beharko banintz Brescian nire zatitxo bat lagako nukeela. Beraz, nahiago dut egunez egun bizi eta gertatu behar dena gerta dadila.

## Laburrean

**Paisaia bat:** Kontxakoa, Donostian.


**Usain bat:** gurasoen etxeko usaina, Debako usaina, familiaren usaina.

**Zapore edo jaki bat:** amamaren sukaldekoak, bereziki makarroiak.

**Gustuko dut...** lagun artean barre egitea, udarako afariak.

**Ez dut gustuko...** errespeturik gabeko jendea.

**Amets bat:** nire helburu profesional guztiak betetzea eta nire inguruko denak ondo egotea.



## “Herritarrekin hartuko dugu azken erabakia zumardiko prozesuan”

Herritarrei zumardiaren inguruko proiektuari buruzko argi-epenak emateko helburuz, ekainaren 15ean prentsurrekoa egin zuten udal gobernuko Gilen Garcia alkateak, eta Itziar Irizar eta Antxoka Elorza zinegotziek. Azken asteotan proiektuaren eta haren kudeaketaren inguruan zabaldutako zalantza eta kritiken ostean egin zuten, hain zuzen, agerraldia. EH Bilduren gobernu taldearen jarrera salatu ondoren, EAJK zein Debarren Ahotsak batzorde mistoa uztea erabaki zuten ekainaren hasieran.

Alkateak azaldu bezala, Dagigun partaidetza gunean, Udala herritarrekin gauzatzen ari den prozesuaren baitan, Europako Next funtsetako diru-laguntza jasotzeko oinarritzko proiektua osatu eta aurkeztu da. Hilabete hasieran ikusgai izan zen proiektua, eta herritarrek zalantzak argitu eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten. “Prozesuan, hasieratik aritu gara elkarlanean Udaleko alderdi guztiekin, eta hasieratik izan dira herritarrek prozesuaren parte. Eta orain arte hartutako erabakiak herritarrekin eta udalbatzako gainontzeko alderdiekin batera hartu ditugu”, esan zuten.

Prozesua garatzeko “puntako aholkularitza” eta “goi mailako” talde teknikoak dutela ere adierazi zuten: “udal arkitektoa, Debegesako arkitektoa, arkitekto urbanista, ingeniari profesionala, eta dinamiztaile jantziak”.

Hainbat fase aurreikusi zituzten prozesuan. Udazkeneko partaidetza saioetan bildutako herritarren ekarpenekin lanketa teknikoak egin du aipatutako taldeak eta oinarritzko proiektua Europako Next Funtsetara aurkeztea “sekulako erronka” izan dela diote.

Nolanahi ere, uneotan prozesuak martxan jarraitzen duela azpimarratu zuten: “Aldaketak izango dituen oinarritzko proiektu bat dugu esku artean, ez definitiboa, batzuek iradokitzen duten moduan. Diru-laguntzak lortzeko aurkeztu dugu, baina denon ekarpenekin aldaketak izango ditu. Eta azken erabakia herritarre-



kin hartuko dugu, udal gobernua herritarren borondatea errespetatuko baitu”.

Horiek hala, herrian azken asteotan zabaldutako mezu edo baieztapenak (“zumardia txikituko dute” ziotenak, kasu) herritarrengan “alarma artifiziala sortzeko mezuak” direla iritzi dio udal gobernua. Herritarrei, hortaz, “lasai egoteko” mezua zabaldu nahi izan diete. Oposizioko alderdiei, berriz, honakoa: “Zarata mediatikoa ez da bidelagun ona gauzak ondo egiteko; politikan denak ez du balio”. Kritika eta gaitzespenen oinarrian “eredu talka” ikusten dute, gobernatzeko moduari dagokionez.

Partaidetza sinesten dutela adierazi zuten, baita honakoa erantsi ere: “Sinesten dugu herrigintzaren eta politikagintzaren oinarria elkarrekin hitz egitea dela. Lan handia egin dugu orain arte, elkarlanean, eta uste dugu batzorde mistoan gauza onak egin ditzakegula Debarentzat eta debarrentzat. Batzordean denok dugu tokia eta oposizioari dei egiten diogu gaizki-ulertzeak egon badira, hitz egiten konpontzera”.

# iritzia

### Homo Aldarri

Egoskor gabilta uneoro gure identitatea zein eta nolakoa den justifikatu nahian. Ni naiz halako eta zu nolako; ez naiz ni, aldiz, gisa hartako eta zu, bai. Ez duzu hau egiten, beraz, hori zara. Nik besteko egiten dut eta, bai, banaiz.

*“Kafea onuragarria da gizakiontzat, betidanik esan dutenaren aurka; hala dio AEBetako Ustezabal Unibertsitate txit gorenak egindako azken ikerketak, % 83ko ziurtasuna bermatzen duen algoritmo berri-tzailea erabiliz egin duten ziber-herri-galdeketa parte-hartzailean ere oinarrituz”.*

Kafeak inporta ez badizu ere, trankil; aldatu subjektua eta erabili esaldi bera. Yoga, gazta, pintalabiosa, GKS, baraua, bizikletan ibiltzea, alferkeria, feminismoa, rooibos-a, egur-taila, maracuya, larrialdi klimatikoa

edota goizean jaiki eta okurritzen zaizun lehenengo kontzeptua. Guztientzako argumetuak erosi daude Googlen (edota udaletzeko arkupean).

Epairik epai, egunean zeharreko konbertsazioak bata bestearen atzetik kateatzen ditugu iritzi subjetoak jaurtiz, gaudenean gaudela adierazi nahi etsigarri.

Izan ziren garaiak nor izateko baserri, lur sail edota sabel emankorren baten jabe behar zuela izan batek, baina joan ziren garaiok eta, gaur, ezin inor izan aldarri sendo baten ugazaba -eta gatibu- ez denak. Zertarako bizi, bestela?

Beste alde batera begiratu behar honek kondanatuta gauzka aldarrigintza patologikora, benetan inportantea den horri begiratzeko ikaraz. Sentitu ezin, trankil bizi ezin.



RIKARDO IDIAKEZ

## Itsaso Molina kirolaria

# “Taldean jokatzeko eta egunero helburu berrietara iristen irakatsi dit waterpoloak”

Itsaso Molinak hamalau urte ditu, DBHko 3. maila ari da bukatzen gaur egun, eta duela bi urte hasi zen waterpoloan jokatzeko. Apirilean, Tomoko Nazioarteko Torneoan Dubrovniken (Kroazia) brontzezko domina irabazi zuen Euskadiko Igeriketa Federazioarekin. Txapelketak emandakoak eta bere esperientziez aritu gara solasean.

**Gustura egongo zarete Tomoko Nazioarteko Torneoan lortutako dominarekin, ezta?**

Bai, oso gustura. Espero genuena baino askoz emaitza hobekak izan ditugu.

**15 urtez beherako kategorian aritu zara, maila ona dago kategorian horretan? Nolakoak izan da lehia?**

Bai, maila ona dago, kontuan izanda ez dugula esperientzia handirik oraindik. Lehia oso berdindua egon zen lehenengo hiru postuetan.

**CN Catalunya kluba izan da txapelketa zuen kategorian eta Jug Adriatic Osiguranjek (Kroazia) irabazi du zilarra. Zein emaitza lortu dituzue?**

Ez zitzaigun Kroaziaren aurka jokatzea tokatu, baina Catalunya klubaren aurka gol batengatik galdu genuen.

**Iaz hasi zinen selekzioarekin jokatzeko. Zenbat txapelketatan aritu zara? Zelakoak izan da esperientzia?**

Bi txapelketa jokatu ditut eta esperientziak oso dibertigarriak eta politak izan dira. Oso dibertigarria egiten zait beste pertsona batzuen aurka eta beste pertsona batzuekin jokatzeko, hau da, nire betiko taldekoak ez direnekin.

**Izan ere Eibarko Urbat waterpolo taldean zabilta, ezta? Asko entrenatzen al zarete? Nolakoak izaten dira entrenamenduak?**

Bai, Urbateko senior taldean jokatu dut, eta egunero entrenatzen gara. Egunean 2 ordu eta 20 minutu, gutxi gorabehera. Lehenengo gimnasio ordu bat, eta ordu eta erdi uretan. Astean bitan igeriketa asko lantzen dugu eta beste hiru egunetan jaurtiketak eta jokoak entrenatzen ditugu.

**Eta partidak noiz eta non izaten dira?**

Partiden erdiak etxean, hau da Eibarren, eta beste erdiak kanpoan izaten dira. Adibidez, Irunen edo Getxon.

**Zein da waterpoloaren alderdirik gogorrena? Eta politena?**

Entrenamendua da waterpoloaren alderik gogorrena. Politena, berriz, kirolak ematen dizkizun aukerak, hau da, taldearekin edo selekzioarekin torneotara joatea.

**Zein dira zuen kirolean beharrezko diren abileziak? Teknika handia behar al da?**

Ondo igeri egiten jakitea eta erresis-



tentzia handia izatea. Jaurtiketak egiteko teknika behar da, batez ere; igeri egiteko teknikak ez du hainbesteko garrantzirik.

**Apirileko txapelketan lortutako emaitza oso ona izan da. Eta gogor entrenatu ostean galtzen duzuen, adibidez, nola bizi izaten duzu?**

Egia esan, kasu honetan adibidez guztiz kontrakoa izan zen. Galdu genuen partidak gehiago animatu gintuen sariren bat lortzeko.

**Zer irakatsi dizu waterpoloak?**

Taldean jokatzeko eta egunero helburu berrietara iristen. Autosuperazioa.

**Deban ez daukagu igerilekurik. Itsasoa sortu zitzaizun igeriketarako afizioa? Edo nola izan zen?**

Txikitatik gustatu izan zait ura, baina waterpolo nire ahizpari esker ezagutu nuen. Bera hasi zen jokatzeko, eta bere partidak ikustea eta, orokorrean, kirola bera asko gustatzen zitzaidan. Hori hala, azkenean probatzea erabaki nuen.

**Aurrera begirako ametsik? Olinpiar Jokoetara joatea, adibidez?**

Noski, Olinpiar Jokoetara joatea amets bat da.

**ASKETA, S.L.**  
 ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA  
**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
 E-mail: asketa@telefonica.net  
 www.asketa.net  
**ALMACÉN:**  
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
 KALITATEA  
 Enpresa Registrada Nº 2/05/049  
 NIVEL 2

Maitena Arrizabalaga Deba  
 Odontologoa  
 Kolkigiatu zk. 20.000.975

**maitena**  
 HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24  
 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



## Irene Sarrionandia izena izango du Camille Extreme emakumezkoen lehenengo postuaren sariak



Camille Extreme mendi lasterketaren antolakuntzakoek orain dela gutxi zabaldu duten berria da: Irene Sarrionandiaren omenez mendi-lasterketako emakumezkoen lehenengo

postuaren sariak debar kirolariaren izena eramango du. Horrela, beren esanetan, “mendiko crack honen inplikazio handia aintzatetsi nahi dugu, 73 urterekin Camille lasterketaren edizio guztietan hartu baitu parte”.

Izabako hitzordu ezagunaren 16 edizioetan hartu du parte Irene Sarrionandiak, pasa den ekainaren 19an azkenengoz, eta bera da edizio guztietan parte hartu duen kirolari bakarra.

31,6 kilometro eta 2.044 metroko desnibel positibo du Camille Extreme lasterketak eta izendapen hori izan du berrikuntza handietako bat azken edizioak, 586 lasterkari bildu zituenak, eta 210 bere bertsiio murriztuan.

## Debatik ere pasa da Euskal Herriko pentsiodunen bizikleta martxa

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak antolatu eta Euskal Herriari bira ematen diharduen bizikleta martxa ekainaren 14an iritsi zen Debara, “1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoak eta zaintza-lana partekatzea” aldarrikatzeko.

Hamahiru etapaz osatutako ibilbidea joan den ekainaren 13an hasi zen Donostian eta hiriburu berean bukatuko da hilaren 25ean (ostirala). Hain zuzen ere, bigarren etapan iritsi zen martxa Debara, eta “Pentsio, bizitza,

zaintza duinaren alde” zioen pankartekin egin zioten harrera Lorea tabernaren parean arratsaldean. Gero, herriko kaleak zeharkatu eta Plaza Zaharrean egin zuten ekitaldia.

Euskal Herriko eta Deba-Itziaroko pentsiodunek ekimen ibiltariaren azken etaparen amaieran egingo den elkarretaratzean parte hartzera dei egin diete herritarrei; ekainaren 25ean izango da, Donostiako Alderdi Ederren, 12:00etan. Debatik trenez joango dira hitzordura.



PATXI AIZPITARTE

### Urte Xakobeoa

Galizia aldean eta Santiagon, bereziki, izan berriak gara. Urte Xakobeoak eraman gaitu haraino. Ezaguna denez, Santiago apostoluaren jaieguna igandean egokitzen denean ospatu ohi da eta, hori kontuan izanik, iaz ospatu beharrekoa zen, baina pandemia zela eta ez zen posible izan. Hori horrela, 2022. urtera pasa eta tarte luza erabaki zuten. Bi urteko etenaldiak ez du jendea Santiago bidetik atzeratu, ordea; erromesek jantziak agertzen dira Compostelarako bideak. Horren testigu gara Itziar eta Deban, eta zer esanik ez Donejakuera iristean.

Santiagorako bideaz hitz egin ohi dugu, singularrean, baina bide hauek guztiak aipa ditzakegu: bide primitiboak edo antzinakoak, frantziarra, iparraldeko edo kostaldekoak, portugaldarra, zilarren bidea eta britainiarra.

Santiagora iristean, elkargune nahitaezkoa bihurtzen da guztiontzat Obradoiroko enparantza nagusia (plaza erraldoia, dotore eta kosmopolita). Eta hura inguratuz katedralak, Raxoi jauregi edo udaletxeak, Errege Katolikoek ospitale-ostatuak (gaur egun paradore nazionala) eta Unibertsitateko San Xerome ikastetxeak. Ondoren, ezin gelditu apostoluari eskainitako katedral erromanikoa bisitatu gabe, eta bertan, euskaldunen kapera sartu-irten bat egin, eta Mateo maisuak egindako Aintzaren Portikoa (mundu mailan hain ezagun den berriki berriztatutako obra bikaina) kontenplatu. Fededun izanez gero, egunean zehar erromesentzat ospatzen diren ospakizunen batean parte hartzeko aukera dugu, eta zorte pixka batekin amaieran botafumeiroa martxan ikustekoa. Erromes frantziar batek zioenez, “utopiak, iraultzak eta beste hainbat kausa kolokan daudenez, erromesaldiek behintzat badiraute”.

## Maddi Astigarraga zientzia-ilustratzailea



Biomedikuntza ikasketak eta bere betiko afizioa, marrazketa, batzen dituen masterra egiten dabil Maddi Astigarraga (Deba, 1997). Oraintsu, ilustrazio zientifikoaren alorrean garrantzi handia duen saria bereganatu berri du Jot Down lehiaketan, *Ikusezina* irudiari esker. Gainera, martxoan, Illustraciencia nazioarteko sariketan ere finalista suertatu zen. Zientzia eta emakumearen arteko hariaz jardun gara berarekin solasean, haren ikusezintasunaz eta ikusarazteko beharraz; ilustrazioak horretarako ematen duen aukeraz, bere ibilbide pertsonalaz eta bestelakoez...

**Jot Down zientzia alorreko lehiaketan ilustrazio modalitatean lehenengo saria ateratu duzu. Pozik, ezta?**

Oso pozik! Lehiaketan parte hartu nuenean ez nuen esperantza handirik eta oraindik sinetsi ezinda nabil.

**Zure ilustrazioak *Ikusezina* du izena. Zer egin nahi izan duzu ikusgarri?**

Lehiaketaren gaia *Ikusezina* izanik, zientziaren atzean ezkutuan geratu diren emakume zientzialariak ikusarazi nahi izan ditut (begiratu ez ezik, jendeak bertan daudela ere garbi ikusteko), baita zientzialari horiek gizarteari eginiko ekarpena islatu ere.

Izan ere, ikusezintasuna ez da beti objektu edo pertsonen berezko ezaugarri. Emakume zientzialarien kasuan, ikusezin egin dituzte, eta egun hala diraute.

Irudian, gizartearentzat ordura arte ikusezina zena ikusgarri egin zuten hiru emakume ilustratu nahi izan ditut, euren existentzia aldarrikatuz eta eginiko ekarpenei garrantzia emanez.

**Zure ilustrazioan hiru emakumezko ageri dira, hortaz. Bada, zeintzuk dira?**

Eskerretik eskubira, lehenengoak, Cecilia Payne-Gaposchkin-ek, astrono-

mialaria, izarren osaera deskubritu zuen, batez ere helio eta hidrogenoz osatuak daudela esanez. Bigarrenak, Inge Lehmann-ek, sismologo-lanetan lurraren barne eta kanpo-nukleoa bereizten dituen etenunea identifikatu zuen, egun "Lehmann-etenune" bezala ezaguna. Eta hirugarrenak, Rosalind Franklin-ek, X izpien difrakzioaren bidez DNAREN lehen irudia lortu zuen. DNAREN egitura zehazteko balio izan zuen irudi horrek.

**“Aurkikuntza garrantzitsuak egindako emakume zientzialariak ez dira ezagunak izan, eta oraindik ere ez dira”**

**Ikur zientifikoak, begi lausoak hondoan... Zer iradokitzen dute?**

Emakumeen erretratuak arreta deitzen moduan marrazten saiatu naiz: emakume hauek, begiratu ez ezik, ikusteko ere deia egiten dute begi lausoek.

Sinboloen bitartez, zientziari egindako ekarpenari aitortza egin nahi izan diot; horregatik, ikerlariak, bakoitzak bere esparrutik, zientziari eginiko ekarpenak txertatu ditut, ezagutarazteko.

Hala, Rosalindek X izpien difrakzioa delako metodologiaren bidez lorturiko DNAREN irudia du masailean. Aldiz, Ingeri, sismografoak erabiltzen zituenez, txaketatik sismografo bat ateratzen zaio eta gainera inguruan dituen sismograma eta zirkuluak berak marraztutakoetan oinarrituak dira. Azkenik, izarren konposizioa deskubritu zuenez, Cecilia izarrez eta eguzkiz inguratua marraztu dut.

**Zientzian emakumea ez da ikusgarri izan historikoki. Eta hala dirau antza... Kopurutan eta lanaren onarpen edo eskubideetan ez al da aurreratu?**

Datuek diotenez, zientzialari hauen ekarpenak, garrantzi handikoak izan arren, ez euren momentuan ez oraindik ez dira behar beste aitortu. Eta aurkikuntzak burutu dituzten emakume zientzialariak ez dira ezagunak izan. Oraindik lan handia dago egiteko berdintasunera bidean eta, beraz, emakume hauek nahiz egun lanean dihardutenak ikusaraztea eta ezagutaraztea garrantzitsua da.

### Noiztik duzu marrazteko afizioa?

Betidanik! Ama Plastikako irakaslea izanda, etxean material asko egon izan da beti, eta nik kuxkuxeatzeko gogoia ugari! Baina marrazteko afizioa 13 urtetik aurrera landu nuen bereziki, izeba Begoñak akuarela kaxatxo bat oparitzean.

### Biomedikuntza ikasi zenuen lehendabizi. Nondik sortu zitzaizun ilustrazio zientifikoa ikasteari ekiteko nahia?

Biomedikuntza gustura ikasi nuen arren, ez nuen nire burua arlo horretako lanetan ikusten. Karrerako 3. urtean nengoela ilustrazio zientifikoa deskubritu nuen, eta hortxe ikusi nuen nire ikasketak eta afizioa uztartzeko lekua. Ez zen betidanik buruan izandako zerbait, baina ilustrazio zientifikoaren inguruan zenbat eta gehiago informatu, orduan eta gehiago gustatzen zitzaidan ilustratzaile zientifikoaren bizitzak. Eta ahal bezain laster ilustrazio zientifikoko masterrean sartzeko lanean hasi nintzen.

### Lanbide hori duen jende askorik ez dugu ezagutzen... Bizibidea atera al daiteke jardun horretatik?

Neuk ere ez, egia esan; lanbidea bera ez da oso ezaguna eta horretara dedikatzen direnak ere ez dira gehiegi. Espero ba bizibidea ateratzea!

### Zein da ilustrazio zientifikoaren aplikazio gune nagusia?

Ilustrazio zientifikoa zientzia komunikatzeko beste tresna bat da. Modu bisualean informazioa transmititzen duenez gero, erabilera ugari izan ditzake. Zientzialarien arteko komunikazioan lagundu dezake, aurkikuntza eta ikerketen emaitzak komunikatzeko, baita dibulgaziorako ere. Museoetan, eskolako testu-liburuetan, gidetan, hondartzako eta flyscheko paseoetako kartel informatiboetan aurki daiteke, besteak beste.

### Ilustraciencia sarietan (Zientzia eta Naturako Ilustrazioen Nazioarteko Sariaketa) finalista izan zinen. Zer ondorio izan ditu zuretzat?

Hasteko, nire lanaren aitortza. Etxean, bakarka lan handia egin behar da eta halakoek jarraitzeko motibazio izugarria ematen dute. Finalisten ilustrazioekin erakusketa bat egiteko asmoa dute.



Ikusezina, Jot Down lehiaketan lehen saria irabazi duen lana.

### Gaur egun, ilustrazio zientifikoak egiteaz gain, bestelako marrazkiak ere egiten al dituzu? Gai kuttunik bai?

Denbora dudanean bai, azkenaldian gutxi... Gai kuttunik? Ez nuke esango.

Hain justu, ilustrazio zientifikoaren abantaila bat da proiektu bakoitzarekin gai ezberdin bat jorrazteko aukera izatea, eta alde horrek asko erakartzen nau. Horrek zenbat teknika probatzeko aukera eskaintzen du, eta alde sortzailea proiektu ororekin lantzeko aukera.

### Zein teknika eta material edo lan-tresna erabiltzen dituzu marrazkiak egiteko?

Egia esan denetarik. Asko gustatzen zait hainbat material eta teknikarekin esperimentatzea. Egia da orain arte erosoago sentitu naizela teknika tradizionalekin, grafito, akuarela eta koloretako arkatzekin. Azkenaldian, berriz, ilustrazio digitalak liluratu izan nau, teknika horrek prozesua asko azkartzen du eta "control+z" zapalduz akatsak borraratzeko aukera izatea zoragarria da.

### Zer gustatuko litzaizuke ilustratzea?

Denetarik! Egia esan, burutazio ugari etortzen zaizkit, baina altu amesten hasita National Geographic-entzat ez bada, zientzia-dibulgazio aldizkariren baterako marrazkiak egin nahi nituzke. National Geographic-eko irakasle bat izan genuen eta bere lanaren aurkezpenaren ostean garbi ikusi nuen, "ilustratzaile zientifikoa izan nahi dut!". *Berriketan*-en ilustraziorik behar izanez gero ere ni prest! *Kar-kar*. Dibulgazio-lanak motibatzen nau gehien, informazioa ulertu eta irudi bidez modu ulergarrian komunikatzeak.

### Zer ekarpen egiten du ilustrazio zientifikoak gizarte mailan? Zer nabarmenduko zenuke?

Ilustrazioaren bidea oso polita da eta irudien bidez gauza asko transmititu eta erakutsi daiteke. Funtzio ugari izan ditzake, gizarteak ezkutatu dituen emakume zientzialariak azalratzea, kasu. Esango nuke ilustrazio zientifikoak zenbat ikusezin ikusarazteko aukera ematen duela; garrantzitsua da, beraz, ilustrazio zientifikoa bera ere ikusaraztea, aukera ugari dakartzalako.

**Xabier Carrillo** Aitzuri abesbatzako zuzendaria

## “Herri-koruak dira afizio-sortzaile eta horiek bultzatu behar ditugu erreleboa gerta dadin”

Ohiko udako kontzertua emango du uztailearen gan (larunbata), 20:00etan, elizako klaustroan Aitzuri abesbatzak. Amaia Zipitria pianista izango du lagun, eta ilusio handiz eta gogotsu prestatzen dihardute emanaldia.

Xabier Carrillo Urkizurekin elkartu gara kontzertuaren berri izateko eta, bide batez, bere ibilbidea ezagutze-ko. Izan ere, Carrillok hartu zion 2020ko irailean Ander Simali abesbatza zuzentzeko makila, bi bider pentsatu beharrik gabe. 42 urte ditu Carrillok eta abestu gabe ezingo luke bere bizitza irudikatu; eta bidaiatuz, lagun-giroan edo musika klasikoa entzunez bada, askoz hobeto.



**Aitzuri abesbatza ez dago geldi azkenaldian. Baina laster hitzordu berezia duzue. Ilusioz?**

Gabonetako, Santa Agedako eta Korrikaren aldeko kale-emanaldiak egin ditugu, eta duela gutxi Itziarko erromesaldian ere izan genuen emanaldia. Horiez gain, bi kontzertu eman genituen iaz, bata Donostian, eta, bestea, Deban. Hala ere, oraingoan kontzertu oso berezi batekin gatoz, uztailearen 9an izango da elizako klaustroan, udarari ongi-etorria emateko asmoz. Berezia izango da formatuagatik (dena pianoak lagunduko du), eskainiko dugun erreperatorioarengatik, eta kontzertua ospatuko den lekuarengatik. Berau prestatzen lan handia egin dugu eta, bai, ilusio handiz gaude hurbiltzen den jendeari erakusteko.

**Udako kontzertu honetan Amaia Zipitria pianista izango duzue lagun...**

Bai, eta horrek ere pozez betetzen nau. Pianista bikaina da Amaia, Musikenen irakasle dabil egun, Asier Polo biolontxelistarekin diskoak ditu argitaratuta, eta ganbera taldeetan eskarmentu handia du, gainera. Abesbatzekin lan egiten ohituta dago Amaia. Donostiako Orfeoiarekin hasi nintzenezan ezagutu nuen, eta ordutik lagun mina dut. Proposamena helarazi nionean, bat-batean eman zidan baiezkoa.

**Pandemia-sasoia zuentzat ere ez omen zen samurra izan...**

Ez da erraza izan, ez. Nik zuzendaritza 2020ko irailean hartu nuen, Aitzuriren proposamena jaso eta ez nuen asko pentsatu beharrik izan. Taldekideok ondo ezagutzen dugu elkar eta erronka interesgarria iruditu zitzaidan. Baina pare bat hilabetera

murrizketekin hasi ginen: lehenik, aforoena, gero musukoena, partaideen “beldurra”rena ondoren... Azkenean, etenaldi bat egin behar izan genuen. Hala ere, joan zen urteko maiatzaz geroztik “normal” gabilta, gaur egun “normal”en esanahia oso argi ez dudana arren.

**Eta nola sentitzen zara kide zintuen taldeko zuzendari?**

14-15 urte nituela hasi nintzen Aitzuriren abesten, baina hasieratik egon naiz soka desberdinetan abestiak irakasten. Pasa diren zuzendari guztiakin ikasi dut asko (Ainhoa Sorazu, Amaia Zinkunegi, Fefe Urain...) gero 22 urterekin Erresuma Batura joan nintzen eta 2007. urtean berriz Aitzurira bueltatu.

**Hala ere, lehendik horretarako bidea egina zenuen, gaztean zuzendari izateko ikastaroak egin baitzenituen.**

Bai, Amaia Zinkunegik animatuta, Iñaki Kareaga eta biok hasi ginen Euskal Herriko federazioak antolatutako ikastaroe-tan. Oso gaztea nintzen eta ez nekien oso ondo zer aurkituko nuen. Gogoratzen dut lehen egunean tonoa ematen ere ez nekiela eta beste ikasleak ikustean atsedendian bertan diapasoiari “sua” atera niola klaseetako mailan egoteko.

**“Abesbatzatik pasa diren zuzendari guztiakin ikasi dut asko: Ainhoa Sorazu, Amaia Zinkunegi, Fefe Urain...”**

**Donostiako Orfeoian ere aritu zara urte askoan zehar. Nolako esperientzia izan da?**

Ingalaterran nengoela ere beti abesbatzetan aritu nintzen, beti abestu izan dut. Lehen aldiz, koru handien parte izaten hasi nintzen, eta haiek erreperatorio sinfoniko koralak jorratzen zituzten eta beti orkestrekin aritzen ziren. 2007an, bueltatzean, erreperatorio hori egiten jarraitzea zen nire

asmoa. Beraz, Donostiako Orfeira hurbildu, sarrera-probak gainditu eta 13 urtezhan aritu naiz. Orain eszedentzian nago.

Esperientzia ikaragarria da! Rattle, Gerghev, Chailly eta abarren agindupean aritzea, edota Berlingo Orkestra Filarmonikoarekin aritzea... Parisen, Luzernan, Londresko Promsetan, diskoak, DVDak, soinu-bandak egitea (Goya saria ere irabazita)... Benetan "aluzinantea" da. Gainera, ibilbide horretan lagun ugari egin ditut.

### **Baina itzul gaitzen herrikora: nola antolatzen da Aitzuri abesbatza? Zein maiztasunekin eta nola entseatzeko duzue?**

Aitzuri ezin da abesbatza handi batekin konparatu, Deban egiten den lan, jorratzen den erreperitorio eta ditugun baliabideengatik. Musika eskolan astean bitan elkartzeko gara, batzuetan ahotsetara antolatuta eta besteetan denok batera. Ilusio ikaragarria duen taldea gara: beti erreperitorioa berritzen saiatzen gara, gure teknika indartzen, kalitatea hobetzen...

### **Mota guztietako abestiak kantatzen al dituzue?**

Musika koralaren ehuneko handi bat polifonia erlijiosoa da, hori da jendeak "eliz musika" bezala ezagutzen duena... baina erreperitorio horretan milaka altxor daude. Hala ere, folklorea ere jorratzen dugu, herrialde askotako abesti eta polifonia, poema musikatuak, soinu-bandak, eta abar. "Menua" ikaragarria da; horren adibide uztailaren 9ko kontzertua izango dugu.

### **Nola aukeratzen duzue une bakoitzean zein abesti kantatuko dituzuen?**

Oinarriarako erreperitorio sendo bat dugu, eta gero gauza berriak tartekatzen dira, beste koru-zuzendariekin hitz eginez eta abar. Gure kontzertuak anitzak dira, eta programa osatzeko gauza asko izaten ditugu kontuan: lanen zailtasuna, taldeko kide kopurua, kontzertua eskaintzen dugun lekua, eta abar.

### **Kanpoan ere dezente ibili zarete. Aberasgarria izango da hori ere taldearentzat...**

Kontzertuak ematea da aberasgarria! Belgika eta Milanen

## **"Ilusio ikaragarria duen taldea gara: beti erreperitorioa berritzen, teknika indartzen, kalitatea hobetzen..."**

egin genituen agerraldiak aipatuko nituzke, eta Estatuan, Madrilan, Bartzelonan eta abarretan egindakoak. Griñoneko lehiaketan lehen saria irabazi genuen, eta beste hainbat lehiaketatan ere parte hartu izan dugu, betiere emaitza onekin. 2023an Gijonen daukagu proiektu bat.

Kanpoan aritzeak, bidaiatzeko zirrara berezia sortzen dizu: publiko berriak, kanpoan euskal folklorea plazaratzeko, edota euskal abesbatzen "soinu berezia" erakus-

teak. Hala ere, Deban edo Milanen aritzeko berdin prestatzen gara.

### **Zein izan daiteke Aitzuri abesbatzako kide?**

Eldonoz izan daiteke taldeko kide. Abestea gustatzen zaionak, talde-lana gustuko duenak, edo musikaren parte izan nahi duenak Aitzuriren ateak zabalik ditu. Solfoea ez da ezinbestekoa. Dena ikasten da! Gogoia eta konpromiso puntu bat soilik behar dira, taldean egiten den edozein jardueratan bezala.

### **Gizonezkoak, emakumezkoak... antzeko kopuruan al daude taldean?**

Emakume gehiago daude, baina erabat normala da, abesbatza guztietan gertatzen den zerbait da. Agian, premiazkoena, kide berriak lortzea da, adin guztietakoak, gazteak eta ez hain gazteak.

### **Gaur egun Euskal Herriko abesbatzen panorama osasuntsua dela esango zenuke?**

Erlatiboan da hori, talde ugari daude, asko maila handikoak... baina askotan jende berbera aritzen da talde guztietan... Herri-koruak dira afizio-sortzaile, eta horiek bultzatu behar ditugu. Bereziki ume- eta gazte-koruak, erreleboa gerta dadin.

### **Hurrengo leerroak zureak dira, Xabi.**

Gonbidapena luzatu nahi nuke uztailaren 9an, klaustroan, eskainiko dugun kontzerturako. Bikaina izango da!

Bestalde, Aitzuri zoriondu nahi dut, egindako lanagatik eta nigan konfiantza izateagatik.



Arg.: Arrate San Martin

## Askotariko kultur emanaldiak Gure Giroren bigarren edizioan

Zinema, musika, tailerrak, irteera gidatuak... askotariko hitzorduak hartuko ditu bere baitan Gure Giro programazioaren bigarren edizioak. Kultur Elkartea, Debako Gazte Asanblada, Jazzez Blai, Debadezine eta Zuhatza Euskara Elkartek elkarlanean osatutako egitaraua du ardatz egitasmoak, eta beste hainbat norbanakok ere parte hartuko du bertan. "Udako kultur eszena aberastu eta sortzaileen lana saretzea" helburu hartuta, hogei emanaldi izango dira uztailaren 3tik 30era bitartean.



**Lourdes Gonzalez  
eta Jon Ander Urain**

Kultur Elkartea

### Nondik dator Gure Giro programazioa sortzeko ideia?

Pandemiak gogor kolpatu zuen herriko kultur eragile eta sortzaileen jarduna. Eta, etenaldi horri aurre eginez, kultur eragileen dinamikak aktibatu eta taldeen arteko sinergiak indartzeko helburuarekin sortu genuen iaz Gure Giro proiektua. Aurten bigarren edizioa egingo dugu, hasierako baloreei eutsita.

**Kultur ekimen asko egingo dira herrian uda partean... Zertan desberdintzen da zuen proiektua edo eskaintza?**

Proiektuaren izaera kolektiboa da gure balio erantsia. Urtean zehar eragile bakoitzak bere esparruan egiten du lan, eta dinamika honen bidez udako kultur eszena aberastu nahiko lukeen edozein norbanako edo kolektiboren parte-hartzea bilatzen dugu; guztion indarrak batu eta uztail osoa hartzen duen egitarau zabal bat osatu dugu.

**Aurten ere, Kultur Elkartea izango da ekimen gehienek topagune. Zer eskaintzen du gure horrek?**

Kultur Elkartea formatu txiki eta ertaineko ekimenak antolatzeko gune egokia da; azpiegiturak hobetzeko lanean ari gara, baina kanpoko plazatxoak edo areto nagusiak hainbat formatutako ekimenak egiteko jokoak ematen du. Bestalde, Kultur Elkartea erreferentzial bihurtzea da aurtengo erronka nagusia; bide horretan lanean ari gara buru-belarri azken hilabeteotan eta udako eguraldi ona aprobetxatu beharra dago.

**Erraza izan al da egitaraua osatzea?**

Kultur sorkuntzari dagokionez, Deba herri aberatsa dela esan genezake, hain-

bat diziplina artistikotako talde eta norbanako asko baititugu inguruan. Hala ere, agendak eta egitaraua "koadratzea" ez da erraza izan. Programazioan, kontaktak, irteera gidatuak, zinema, hainbat musika estilotako kotzertuak... biltzen saiatu gara, adin eta profil ezberdineko herritarrentzat erakargarria den egitarau zabal bat prestatuz. Egindako lanak merezi izan duela pentsatu nahi dugu.

**Hainbat publikori zuzendutako emanaldiak programatu dituzue, zer nolako erantzuna espero duzue?**

Kontrakoa pentsa daitekeen arren, uda partean ekimen batzuekin asmatzea zaila izan daiteke; eguraldiak, hondartzak edo inguruko herrietako jaiak, adibidez, asko baldintzatu dezakete parte-hartzea. Hala ere, herritarren erantzuna ona izatea espero dugu. Maialen Tellabide, Iñigo Ruiz de Gordejuela, Josu Salegi, Amaia Zinkunegi, Alex Turrillas, Maialen Solabarrieta, Dawanada musika taldea, Itsaso Iciar eta Martina Soto... herriko sortzaileen lanari garrantzia eman nahi izan diogu eta herritarrek hori modu positiboa baloratuko dutelakoan gaude.

### Gure Giro, gure kultur eszena saretzen Egitaraua egunez egun

- Uztailak 3** Udako zinema: *Pan de limón con semillas de amapola* 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 6** Blues tailerra + Jam session 22:00etan, Gaztetxean
- Uztailak 7** Jazz kontzertua: *The Chickpeas* 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 8** *Trakamatraka* umeentzako ikuskizuna 11:00etan, zumardian
- Uztailak 9** Jazz kontzertua: *Malwina Masternak* 19:00etan, zumardiko karpan
- Uztailak 9** Jazz kontzertua: *Juanma Urriza Quartet* 22:00etan, zumardiko karpan
- Uztailak 10** KulturEkin kontzertua: *Xahu* 13:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 10** Soul kontzertua: *Arima soul* 19:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 13-20-27** Asteazken Akustikoak 22:00etan, Gaztetxean
- Uztailak 14** Udako zinema: *Laburmetraiak* 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 16** Irteera gidatua: *La otra historia de Sasiola* 10:00etan, Plaza Zaharretik
- Uztailak 17** Rock kontzertua: *Dawanada* 13:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 21** Helduentzako kontaketa: *Otsandreak korrika* 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 23** Yoga tailerra 10:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 23** Rock kontzertua: *Añube + The Clayton + John Dealer & The Coconuts* 19:00etan, Gaztetxean
- Uztailak 24** Udako zinema: *Última noche en el Soho* 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 28** Udako zinema: *Delicioso* 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan
- Uztailak 30** Irteera gidatua: *Atalayas balleneras* 10:00etan, Itxaspeko kanpinetik





## Udako zinema | Uztailaren 3, 14, 24 eta 28an | Kultur Elkarteko plazan

Patxi Lopez eta Iñigo Loiola Debadezine

### Zer nolako filmak proiektatuko dituzue?

Hainbat gairi buruzko filmak aukeratzen saiatu gara, ikusleen gehiengoarentzat gustukoak izan daitezkeenak.

### Debadezine urte osoko dinamika duen taldea da, zein da Udako Zinemak dakarren berritasuna?

Filmak aire zabalean proiektatuko ditugu, eguraldiak laguntzen baldin badu behintzat; hori izango da nobedade nagusia, urteko gainontzeko emanaldiekin alderatuta, eta horrek giro eta sentsazio desberdinak sortzen laguntzen du gutako bakoitzean.

Aukeratutako filmak oso desberdinak dira. Benito Zambranoren sentsibilitateari protagonismoa ematen hasiko gara, kasu honetan emakumeen mundua eta giza harremanak jorratzen, *Pan de limón con semillas de amapola* lan liluragarriarekin. Aitor Oñederrak hautatutako euskarazko laburmetraien bilduma bati beste saio oso bat eskainiko diogu: *Dar Dar* (Paul Urkijo), *Berak baleki* (Aitor Gametxo), *Heltzeaz* (Mikel Gurrea) eta *Trumoiak* (Iker Maguregi).

Bestalde, *Última noche en el Soho* filmak Londresko auzo famatura eramango gaitu, suspensez eta beldurrez betetako gau batean. Eta, azkenik, *Delicioso* filmak Frantziako Iraultzaren aurreko uneak erakutsiko dizkigu, munduko lehen jatetxearen sorrerari buruzko komedia batean. Goza ezazue!

## Jazzez Blai festibala | Uztailaren 6tik 10era

Bueltan dator beste behin ere Jazzez Blai festibala, herria jazz doinuez ziprizzintzeko asmoz. Jaialdiaren hirugarren edizio honetan, goi mailako jazz, blues eta soul emanaldiez gozatzeko aukera egongo da. The Chickpeas, Malwina Masternak, Juanma Urriza Quartet, Xahu eta Arima Soul taldeen kontzertuak izango dira aukeran; oholtzara igoko diren musikarien artean herriko hainbat sortzaile daude.

Jaialdiaz harago ere, beste zenbait ekimenetan ere presente egongo dira jazz doinuak, hala nola Gaztetxean egingo den *jam session* eta blues tailerrean edota Iturri Ondoan ekimenaren baitan antolatutako Begiradak saioan.



## Trakamatraka ikuskizuna | Uztailaren 8an | Zumardian

Musika aniztasuna, sormena eta irudimena, birziklapena eta ingurumenarekiko errespetua bateratzen dituen proiektua da Trakamatraka konpainiarena. Haurrei zuzendutako tailer eta kontzertu didaktikoen bitartez, musikaren munduan modu erakargarrian barneratzeko proposamena dakar eta, aldi berean, birziklatze-kontzientzia lantzen du. Alegia, “gizarte honek baztertzeko dituen gauzak eraldatu, eta zoragarririk diren musika-tresna bihurtuko” dituzte saioan; “giro atsegina eta parte-hartzaile batean, isiltasunari forma emango diogu sormena landuz. Musika ulertzeko eta maitatzeko bide berria ezagutzeko aukera izango dugu”.

Saio irekia izango da zumardikoa eta, Kolore Anitz Aisialdi Taldearekin elkarlanean, Kolorez Blai udalekuetako haurrek ere parte hartuko dute bertan; izan ere, HH5 eta LH1-2 mailetan dabilzan ikasleek udalekuetan landuko dute Trakamatrakaren proiektua eta zuzeneko ikuskizunean ere arituko dira ondoren.

## Irteera gidatuak | Uztailaren 16 eta 30ean

Alex Turrillas Debako historian aditua

### Nola laburtuko zenituzke uztaileko bi irteera gidatuak? Loturarik badute euren artean?

Bi bisitak dira oso interesgarriak. Lehenengoa, Sasiolakoa, behin baino gehiagotan egin dut, jende askorekin beti. Nire iritzia apalean, debar guztiek egin beharko lukete noizbait, gure herriaren historiako gertaera interesgarri eta giltzarri buruz ikasi ahal izango baitute. Bidean zehar zein Sasiolan, Paleolito garaiko historiaurreaz, Deba ibaiko merkataritza trafikoaz, bandokideen gerraz, Gaztelako Erkidegoetako gerraz edo Sasiolako fronteko Konbentzio Gerraz hitz egingo dugu, Sasiolako Erdi Aroko dorrearen eta ondorengo komentu eta ospitale frantziskotarraren jatorria eta gorabeherak ahaztu gabe, noski.

Bigarren bisita ere, Mendatako bale-talaiara egingo duguna,

oso interesgarria da. Jende askori ia ezinezkoa iruditzen zaio Erdi Aroko benetako bale-talaia bat kontserbatu izana, nahiz eta hondatuta egon. Gure uretan balearen ehiza eta merkataritza Debako ekonomiaren lau hanketako bat izan zen iraganean. Erdi Aroko Debako “Balaena Biscayensis” eta ehiza denboraldiaz, itsasontzi eta tripulazioez, balearen merkataritza eta talaia-sareaz hitz egingo dugu.

Nire aholkua da uztailaren 16an eta 30ean kirol eta kulturaz jantzitako goiz eder bat pasa nahi dutenek ez dezatela galdu Kultur Elkarteak antolatutako bi bisita horiek egiteko aukera.





## Dawanada taldea | Uztailaren 17an | Kultur Elkarteko plazan

**Oier Konde** bateria jotzailea

**Ezagutzen ez zaituzte-  
nentzat, nola aurkeztuko  
luke Dawanada taldeak  
bere burua?**

2017an, lagunartean eta modu espontaneoan sortutako musika taldea da Dawanada, Euge Garcia, Izukaitz Arizmendiarrera eta hirurok osatua. Rock instrumentala egiten duen hirukotea gara eta hasiera-hasieratik garrantzi handia eman diogu abestien sorkuntzari. Gure erre-

pertorioa guk geuk sortutako abestiz osatuta dago eta kanta bakoitzari gure ikutu pertsonal berezia ematen saiatzen gara.

**Zer nolako emanaldia eskainiko duzue Gure Giron?**

Oso gogotsu gaude gure herrian, lagunartean, gure abestiak aurkezteko. Kontzertua Kultur Elkarteko plazan izango da, eta garagardo fresko baten konpainian rock musika gustuko duen edonori emanaldira bertaratzeko gonbidapena luzatzen diogu.

## Otsandreak korrika | Uztailaren 21ean | Kultur Elkarteko plazan

**Amaia Zinkunegi** ipuin kontalaria

Emakumeak protagonista dituzten istorio eta irakurketek osatzen dute *Otsandreak korrika*; "jakin badakizkigun baina batzuetan ezkututzen ditugun gaiei buruzkoa da: heriotzaz, amatasunaz, konplizitatez, sexualitateaz, arriskuak hartzeaz" dihardu, Zinkunegik azaldu duenez. 16 urtetik gorakoei zuzendutako kontaketa izango da (50 minutukoa).

**Zergatik animatuko zenuke jendea bertaratzera?**

Alde batetik, planteatzen diren gai horiei buruz entzutea interesantea dela iruditzen zaidalako; eta bestetik, pentsatzen

dudalako, jendeak tarte goxo bat pasako duela eta gozatuko duela kontaketaekin; irribarrerren bat ere aterako zaio momenturen batean, seguru asko. Gainera, dena begietatik sartzen zaigun garai hauetan, ederra da zaratarik gabeko entzuketaz gozatu ahal izatea eta norberak, kontakizunean zehar, irudi propioak sortzea: protagonistak imajinatzea, paisaiak irudikatzea, egoerak koloreztatzea...



## Asteazken Akustikoak | Uztailaren 6, 13, 20 eta 27an | Gaztetxean

Urtez urte formatuan berrikuntza txikiak egin izan diren arren, bere esentzia herrikoia mantendu dute Asteazken Akustikoak. Programazioa osatzeko orduan, maila zein estilo guztietako musikarien presentzia

bilatzen dute antolatzaileek, herriko sortzaileen parte-hartzeari garrantzi berezia emanez. Eguraldiak laguntzen badu, Gaztetxeko terrazan egingo dira kontzertuak. Aurtengo edizioan Koiu (bakarlaria, Urnieta), Abian (hirukote akustikoa, Iruñea) eta Martina eta Itsaso (bikote akustikoa, Deba) arduratuko dira asteazken iluntzeak goxatzeaz. Emanaldi guztiak doakoak izango dira.

## Yoga tailerra | Uztailaren 23an | Kultur Elkarteko plazan

**Maialen Solabarrieta** Yoga irakaslea


**Bigarren edizio honetan, yogak ere izango du kabida Gure Giron. Zer nolako saioa izango da? Zeini zuzendua?**

Kultur Elkarteko plazan egingo dugu, eta txoko polita da yoga praktikatzeko. Ordubete eta laurden iraungo du eta publiko mota guztiei zuzenduta egongo da; izan ere, yogaren praktika norbanakoari egokitzen zaio, eta ez alderantziz. Saioa lasai hasi eta amaituko dugu, arnasketa kontzientez eta mugimendu goxoz lagunduta. Tartean, asana edo postura desberdinak proposatzen joango gara eta norberak haiei tamaina hartzeko aukera izango du, gehiago edo gutxiago sakonduz.

**Zergatik animatuko zenuke jendea saioan parte hartzera?**

Yogaren praktikak barne mundurako begirada pizten

laguntzen digu. Uneoro arnasten dugu eta mugitzen gara, baina ekintza horiei arreta osoa eskaintzeak egunerokotasunaren pilotu automatikotik irten eta gure burua bere osotasunean ezagutzea ahalbidetzen digu. Bizitza, mundu emozionala zein erresistentziak kudeatzeko tresna da yoga. Barne lasaitasuna elikatu eta eguna energia berriztatuz hasteko aukera emango digu saioak. Alfer, kirolari, gazte, heldu, mendizale, surflari, lotsati, umoretsu zein ostiraleko poteoko erresaka lagun duena ere beso zabalik hartuko dugu! Gainera, gosaria gure kontu!





**dkt**

Debarreneko  
Komunikazio  
Taldea

# Bizi Debarrena

# Turismoa dibertsifikazio-iturri



## AITZIBER CORTAZAR ALTUNA

DEBEGESAKO TURISMO ETA GARAPEN JASANGARRIKO SAILAREN ARDURADUNA

**A**ldi oro zalantzan jartzen da turismoak EAEren ekonomiari eta euskal gizarteari egiten dion ekarpena, eta, ondorioz, ez zaio ematen ekonomia-jarduera eta enplegua dinamizatzeko faktore gisa dagokion tokia, ezta tratamendua ere. Hala ere, Debabarrenak turismo-eredu jasangarrien aldeko apustua aldarrikatzen du eta horretan dihardu.

2010az geroztik, eskualdeko produktu turistiko nagusia Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen duten Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea da. Biztanle orori zuzendutako 15 irteerek osatzen duten bisita gidatuen programa dauka eta urtean 1.300 bisita baino gehiago eskaintzen ditu. Bisitarietako asko bertakoak dira. Hori horrela, ez bairik gabe, eskualdeko produktu turistikoaren garapen handiena kostaldean dugu, horren adierazleak dira, besteak beste, Deba eta Mutrikuko hondartzak, begiratokiak, Donejakue bidea, Mutrikuko Hirigune Historikoa, Santa Maria Eliza, Arrietakua Jauregia, geo-ibilbideak, etab. Produktu guztiak garatzeko eredu jasangarria lantzen eta bideratzen da, hain zuzen, masifikazioa ekiditeko.

Era berean, turismo sektorea ekonomiaren dibertsifikazio iturri dugu eskualdean, enpresa txikiek osatzen dute, gehienak familia-negozioak: bizitza-apustua. Sektoreak neguan enpresei ematen die zerbitzu, udan, berriz, bisitariari. Hori horrela, ostatu-eskaintzari erreparatzen badiogu, Deba eta Mutrikuko

udalerrietan landetxeak eta nekazalturismoak ditugu nagusi, zalantzarik gabe landa-inguruneari eusteko funtsezko elementuak bilakatu dira. Eta kanpinek eskualdeko ostatu-eskaintza handiena osatzen dute. Eibar, Ermua eta Elgoibarrek eskualdeko ohe eskaintza gehiena dute eta udan (ekaina-abuztua bitartean) % 95 baino gehiagoko okupazio-tasak dituzte. Horren erakusle dira azken urteotan Eibarren sortutako alojamendu berriak.

### "Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna"

Testuinguru horretan, erronka nagusietako bat eskualde barruko udalerrietan eskaintza turistiko erakargarria eta jasangarria garatzea da. Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna, horren adibide da azken urteotan Dolmenen

ibilbidearen inguruan Bergara, Soraluze eta Elgoibarko udalek egindako lanketa. Beraz, ditugun elementuetatik abiatuta, ondare industrialari eta eskualdearen nortasunari aukera turistikoa eman diezaiozun.

Eskualdeko turismo sektorea negozio txikiz osatua dago, landa-eremuaren biziraupenari mesede egiten dio eta ondarea mantendu eta balioan ipintzeko baliabide ezin hobea da. Industrialari den eskualde honetan enpresei zerbitzu ematen die eta bertakook gozatu ditzakegun eskaintza baliatzen du. Beraz, turismo eredu jasangarrienaren aldeko apustua egin dezagun eskualdean.

**Argitaratzailea:** Debabarreneko Komunikazio Taldea

**Erredakzioa:** Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

**Publizitatea:** Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Nagore Dorronsoro

**Diseinua eta maketazioa:** Zalaoa Arnaiz

**Tirada:** 18710 ale



# Museoak



## Armagintzaren Museoa

Bista-Eder kalea, 10. EIBAR  
943 708 446  
museoa@eibar.eus  
Asteazkenetik larunbatera: 16:00-20:00  
Igaudeetan: 10:00-13:00



## Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa

Arrate Balle auzoa. EIBAR  
944 029 099  
www.ateri.net  
Igaudeetan: 11:30-13:30



## Makina Erreminta Museoa

Azkue Bailara, 1. ELGOIBAR  
943 708 456  
museoa@museoa.eus  
Astegunetan: 8:30-13:00/14:30-17:30



## Mufomi Museoa

Artetxe kalea z/g. (Artetxe eskola zaharrak). ELGOIBAR  
608 416 683  
info@mufomi.org  
Asteburuetan-jaiegunetan: 11:00-14:00



## Hezur Museoa

Artetxe. ELGOIBAR  
650 352 566  
josejumarquez@gmail.com  
Asteburuetan, aurrez ordua hartuta bakarrik.



## Nautilus Interpretazio Museoa

Jose Antonio Ezeiz kalea, 3. MUTRIKU  
943 603 259 / 943 603 378  
nautilus@mutriku.eus



Debako Surf eskola

**YAKO**



## UDAKO IKASTAROAK

### > SURF ASTEKOAK

Astelehenetik ostiralera  
Iraupena: 7 ordu eta erdi  
Ordu-tegiak:  
A) 10:00 - 11:30 B) 12:00 - 13:30  
D) 16:00 - 17:30 E) 18:00 - 19:30

### BI EGUNETAKO KURTSOA

Iraupena: 3 ordu (ordu eta erdi egunero)  
Aukeratu zuk asteko egunak

### ORDU PARTIKULARRAK

Astelehenetik igandera

### PLAZA MUGATUAK

688 743 863 | 943 029 600  
www.yakosurf.com  
yako@yakosurf.com

### > MULTISURF

Ekainaren 20tik irailaren 9ra.  
Astelehenetik ostiralera  
Iraupena: 15 ordu  
Ordu-tegiak: 10:00 - 13:00  
Adina: 6 urtetik 13ra

### > SURF - SKATE

Astelehenetik igandera  
Eskolak orduka  
Hastapena eta hobekuntza

### > SUP

Astelehenetik igandera  
Hastapen eskolak orduka  
Hobekuntza eskolak

## DEBA-ITZIAR - Mendatagaina

Mendatagaina du inguruotako tokirik kuttunena Josune Arakistain (Lastur, 1996) Huntza taldeko abeslari eta trikitilariak. "Euskal Herria ederra dela badakigu, baina Top zerrenda bat egingo bagenu, dudarik gabe leku hau lehenengo postuetan egongo litzateke", adierazi du. Gustuko ditu bertako "fauna, flora, historia, paisaia eta lasaitasuna (udaran ez horrenbeste)...", eta hitz gutxitan laburbildu du preziatua duen lekua: "Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, gozatzeko eta errespetatzeko labarra".

Zenbait urtez trikitilari txapelketetan ibili ondoren, Huntza taldearekin dabil plazaz plaza lasturtarra, 2014az geroztik. Urteotan, lau disko kaleratu dituzte –*Ezin ezer espero* (2021, Mauka Musikagintza) da horietako azkena–, bidean ehunka oholtza eta leku ezagutuz. Baina, musika esparruan ere, Mendatagain aldeak berezia izaten jarraitzen du Arakistainentzat. "Nire ibilbideko bideoklip garrantzitsuena, *Aldapan gora* abestiarena, bertan grabatu genuen eta oroitzapen zoragarriak dakarzit".

Aitzuri hormatzen handiaren gainean kokatua, Mendatagainak euskal kostalde osora hedatzen den ikusmira zabala eskaintzen du. Hainbat ibilbide egin daitezke inguruetan; *Itsaslabarraren Sustraiak* (PR-Gi 5001), adibidez. Mendatagaineko behatokitik, Sakonetako senadia, Andutzeko faila (flysch kareduna eta flysch beltzaren artekoa), marearteko zabalgunea edo Mendatako ur-jauzi txikia ikus daitezke. Halaber, paisaiaren parte dira hariztiak, artadiak, txilardi-otadiak...


"Gauzetara ohitzen garenean aspertzen garela dio esamoldeak, baina ni ez naiz sekula ohituko leku honetara".



**JOSUNE ARAKISTAIN** - Musikaria



**"Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, errespetatzeko eta gozatzeko labarra"**



**YLENIA BAGLIETTO** - Aktorea



**"Goizean goiz aitarekin etxetik irten, Ixuara joan eta fritoak jaten genituen han"**

## EIBAR - Ixuatik Arratera

Ylenia Baglietto (Eibar, 1986) bide arrakastatsua egiten ari da antzerkiaren munduan. Aktore eibartarra gelditu barik dabil eta azkenaldian *Erresuma* antzezlanean ikusi ahal izan dugu, besteak beste. Pasioz eta maitasunez jarduten du, baina oso lanbide zorrotza da aktorearena eta Yleniak eguneroko joan-etorrietatik ihes egiteko ibilbidea proposatu digu.

Eibartar orok ezagutzen du Ixua eta Arrate arteko bidea, baina ezaguna izanagatik ez du bere xarma galtzen. Gainera, bide horrek esanahi berezia du Yleniarentzat. "Umetan aitarekin egiten nuen ibilbidea da", gogoratzen du maitasunez. "Goizetik etxetik irten eta oinez joaten ginen Ixuara. Frito batzuk jaten genituen han, eta gero, Arratera joaten ginen oinez", gehitu du.

Bide horretan Kalamuako lautadatik pasatzen da bidea eta norbaiti Arratera doan bidea oso erraza iruditzen bazaio, Kalamua, Aizketa, Akondia eta Garagoitiko tontorretara igotzeko aukera ere badu bidetik asko alden du gabe. Bide asko dago, aukera ezberdinak.

Behin Arratera iritsita, han zerbait bazkaltzeko ohitura zutela dio Yleniak. Orain, jatetxe bakarra dago bertan, Tiro Pitxoia, hainbeste urtetan Arrateko ikurra izan den Kantabria jatetxeak itxi berri baitu atea.

XVII. mendean eraikitako elizaz gain, frontoia, sua egiteko parrillak, mahaia eta zelai handi bat aurkitu ditzakegu Arraten. Yleniak, oster, beste toki bat nabarmentzen du: gurutzeta. "Bueltak ematen genizkion ligatu ahal izateko", diosku barrez.

## ELGOIBAR - San Pedroko parkea

**R**eyes Prados (Sevilla, 1982) Sevillan jaioa da. Han egin zituen Kazetaritza ikasketak, eta lanak ekarri zuen Euskal Herrira, 23 urte zituela. Bilbo ingurura iritsi zen lehenengo, eta hasierako urteak Sevillatik Euskal Herrira bueltaka eman zituen. Orain dela bost urtetik Elgoibarren bizi da, eta Elgoibar, eta oro har, Euskal Herria izugarri gustatzen zaizkiola dio. Gustuko txoko asko ditu, baina Elgoibarren bat aukeratzeko eskatuta Idotorbe-San Pedroko gunea aipatu du: "Elgoibarren dago, baina aldi berean, ez dago Elgoibarren. Herritik gertu dagoen oasis moduko bat da". Herritik hurbil dago San Pedro, eta oinez zein autoz joateko aukera ematen du. Pradosek aitortu du bera ez dela oso mendizalea eta ia beti autoz joaten dela, baina handik abiatuta, mendi ibilaldiak egiteko ohitura daukala. Kalamuara, Morura, Morkaikora edota Arratera oinez joateko abiapuntua da San Pedro herritar askorentzat.

Pradosen ustez, San Pedrok dena dauka, umeen zein helduen gozamenerako. Frontoia, parkea, barbakoa egiteko parrillak, eta batez ere, bistak: "San Pedrotik dagoen ikuspegia zoragarria da, mendi pila bat ikusten dira eta orduak eman ditzaket urrutira begira". Jatetxea ere badago, hamaiketakoa egin edo bertan bazkaltzeko aukera ematen duena. "Askotan egoten gara gu jatetxeko terrazan zerbait hartzen, eguraldi onarekin. Leku aproposa da, eta neguan taberna barruan goxo-goxo egoten da".

Bakarrik zein familian edota lagun artean gozatzeko aukera ematen du San Pedrok, eta elgoibartar askok aukeratzen dute asteburuetan.



**REYES PRADOS** - Kazetaria



**"Herritik gertu dagoen oasis bat da San Pedro"**



**IGOR ASTARLOA** - Txirrindulari ohia



**"Lasterketa aurreko egunetan, denbora asko igarotzen nuen bertan, lasai, pentsatzen"**

## ERMUA - Untzamako gaina

**I**gor Astarloak (Ermua, 1976) 2009an utzi zuen txirrindularitza profesionala, lortutako garaipenei esker kirol horretan erreferente bihurtuta. Garaipen horien artean Munduko Errepideko Txirrindularitza Txapelketa nabarmentzen da, 2003an eskuratu zuena Hamiltonen (Kanada). Garai hartan Untzama ingurura joaten zen Igor sarritan, eta gaur ere, bere lekurik kuttunen artean dago mendi hura. Ermuko Santa Ana auzotik abiatu behar da bertara joateko, Abeletxe baserria igaro, eta maldan gora jarraitu lautada batera heldu arte, ezkerretarako bihurgunea hartu baino lehen. Handik, zuzen joanda, Untzamako mugarrira heltzen da, Ermua, Eibar eta Zaldibarrek bat egiten duten tokia adierazten duen triangulu-formako harrira, alegia.

"Lasterketa aurreko egunetan, goizetan entrenatu, eta arratsaldetan Untzamara joaten nintzen. Denbora asko igarotzen nuen bertan dagoen harrian eserita, lasai, pentsatzen-edo". Izan ere, ermuarren iritziz, Ermua inguruko txororik politena da hau, Sallabente gainetik Ermuko hainbat auzo ikusten direlako, Oiz mendia, Egoarbitza... "Paseotxo bat da, gogorra, hasieratik maldan gora joan behar delako, baina ederra!". Paisaia ikusi eta gero kirola egiten jarraitu nahi dutenak Elorretaraino joan daitezke: "Orain dela gutxira arte jarraitu dut bertara joaten. Txikitako oroitzapen politik dakarzkiz, bertan zegoen tabernaraino joaten bainintzen askotan".

Azken bi urteetan Mutrikun bizi den arren, Astarloak ondo gogoratzen ditu inguruko ibilbideak, oinez, korrika, zein bizikleta gainean egitekoak. Negurako, esaterako, Errekaldetik gora doan bidea egitea gomendatzen du, Berano auzoa, Trabaku, Osma eta Areitio zeharkatuta Ermura bueltatzen dena.

# 'Elosua-Plazentzia' liburua aurkeztu dute Karakaten

E kainen 19an, Soraluzeko, Elgoibarko eta Bergarako alkateek, Aldundiko kultura diputatuak eta Aranzadiko ordezkariak *Elosua-Plazentzia* izeneko liburua aurkeztu zuten Karakaten, azken urteotako indusketetan lagundu duten hainbat boluntariorekin eta ekitaldira hurreratu ziren dozenaka herritarrekin batera.

*Elosua-Plazentzia* liburua argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua. Hasierako ataletan, Muskiritzu mendilerroaren ezaugarri geologiko eta kulturalen berri ematen du, eta, ondoren, XX. eta XXI. mendeetan inguru horretan egin diren azterketen eta aurkitu diren monumentu (21) eta pieza nagusien inbentario zehatza aurkezten du, azken urteotan ezagutu diren datu berrien eta egin diren zaharberritze-lanen gaineko

informazioarekin batera. Horrez gain, argitalpenak estazio megalitiko osoa irudikatzen duen oinarritzko mapa bat ere badakar.

## Mendeurrenaren harira

Hain justu, aurten bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek eta Eguren Muskiritzuko mendilerroan aurkitutako lehen aztarna megalitikoaren gaineko liburuxka argitaratu zutenetik eta Aranzadik data seinalatu hori baliatu

**Argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua**

nahi izan du *Elosua-Plazentzia* liburua argitaratzeko.

Jesus Tapia Aranzadiko kideak aitzindari izan ziren hiru arkeologo ezagunen lana goretzi zuen aurkezpenean: "Garai hartan ezer gutxi genekien fenomeno honen inguruan. Esplorazio batzukeginak zeuden Aralar eta Aizkorri inguruetan eta Muskiritzuko ia zen Euskal Herrian ezagutu den adibiderik zaharretako bat. Orduan ere esaten zuten oso eremu interesgarria zela, ez bakarrik elementuen kopuruagatik baizik eta sakabanatuta eta multzoka antolatuta dauden moduarengatik ere bai. Garai hartan egin zituzten lanak oso zorrotzak izan ziren ordurako".

Azken urteotako lanari erreparatu, berriz, arkeologoa gustura agertu da lortzen diharduten emaitzekin: "Orain, ia ehun urte geroago, berriz hasi garenean



## DOLMENEN IBILBIDEA



MENDIA ETA ITSASOA  
TALAIA BERETIK

Zatoz historiaurrean  
zehar ibiltzera!

### BISITA GIDATUEN EGUTEGIA

Uztailak 12, asteartea (Gaztelania)  
Abuztuak 15, astelehena (Gaztelania)  
Irailak 25, igandea (Euskara)  
Urriak 2, igandea (Gaztelania)  
Urriak 9, igandea (Euskara)

Bisitetan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez 657 794 677 telefonoan edo ondorengo helbidean izena ematea:  
[www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak](http://www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak)

Bisita guztiak 10:00etan hasiko dira Karakateko aparkalekutik.



Elgoibarko, Soroluzeko eta Bergarako alkateak eta Aranzadiko teknikaria (ezkerretik hirugarrena) liburua eskutan dutela.

industriaren, ematen zuen gauza gutxi aurkituko genituela, baina harrituta eta oso pozik nago jasotzen ari garenean emaitzekin. Oraindik badago partida. Ari gara beste teknologia eta ikuspegi batzuekin informazioa biltzen eta ondorengoek ere gure lana errebisatu eta osatuko dute".

**Aurten bete dira  
ehun urte Aranzadik,  
Barandiaranek eta  
Egurenen lehen  
liburuxka argitaratu  
zutenetik**

### Liburua salgai

Amaieran jakinarazi zutenez, liburua salgai izango da Dolmenen Ibilbidea proiektua bultzatzen diharduten hiru udalerrietan: Soroluzen eta Elgoibarren udaletxeetako harreraren eta Bergaran Laboratoriumean. 5 euroan salduko dute.

**Arrate Bailara, 34**  
(AZITAIN gaina)

**RRIARTE**

Enpresentzako  
egongelen  
alokairua  
Jatetxea  
Menu eta Karta  
Ospakizunak  
Logelak

Hotel Asador \*\*\*  
943 702 967 [www.hotelarriarte.com](http://www.hotelarriarte.com)  
ERRESERBAK: [reservas@hotelarriarte.com](mailto:reservas@hotelarriarte.com)

**ZURE OSTATUA**  
Eibar erdian eta  
Euskal Herriaren  
bihotzean

**eibarrooms** AUTO CHECK-IN®

[www.eibarrooms.com](http://www.eibarrooms.com)  
Ego Gain, 17 ac

**ME MAKINA  
ERREMINTA  
MUSEOA**

AZKUE AUZOA, 1  
20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)  
T. 943 748 456

[www.museoa.eu](http://www.museoa.eu)  
[museoa@museoa.eu](mailto:museoa@museoa.eu)

**Mélida  
Ostatua**

Debabarreneko betiko ostalua

Bizkaia Etorbidea, 13 - ERMUA  
**943 17 00 19**  
[www.melidaostatua.com](http://www.melidaostatua.com)

ermua

**Hotel Arbe**

*Egi bihurtzen  
diren ametsak*

Laranga auzoa z/g  
Mutriku eta Deba artean  
Tel: 943 604 749  
[www.hotelarbe.com](http://www.hotelarbe.com)

**DEBA**  
627 325 135

**IPAR**  
SURF & SKATE ESKOLA

Web: [Iparsurfskate.com](http://Iparsurfskate.com)  
Instagram: @Iparsurfskate

## MALLABIA - Trabakutik Trabakura

Mallabikoa den arren, duela urte gutxi aurkitu zuen Karmele Gisasola (Mallabia, 1994) herri-kirolariak Trabakun hasi eta bukatzen den mendi buelta hau, eta ordutik, hainbatetan egin du. Trabakun Ermurako bidea hartu behar da, eta Donai baserriaren parean dagoen porlanezko aldapan gora egin behar da. "Atzealdean Oiz mendia izango dugu, eta eskumatara Mallabiko auzo ezberdinak eta Anboto", azaldu du. Aldapa hura bukatutakoan, ezkerretara dagoen baso pista zabalenetik jo beharko da, Asuntzako bidegurutzeraino. Bertatik Markina-Xemeinera, Urkora edo Mallabiko Berano Txiki auzora jaitsi daiteke, eta Gisolak azken bide hau hartu ohi du, Berano Nagusirako norabidean. Auzo horretako ermitara heldu baino lehen, Egia baserriaren atzeko pista hartu eta lehengo bidegurutzera helduko gara. Eta hortik Trabakura berriro ere.

Hiru orduko bide hau oinez, bizikletaz edo motoz egin daiteke, eta Karmeleren esanetan, mendiaz, basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du. "Konfinamendura arte ez nekien pista hauek zeudenik, ezta haien artean lotura egiteko aukera zegoenik ere, eta ziur nago beste herritar askok ere ez dutela honen berri izango".


Karmele Gisasola Euskal Herriko txapelduna da harri-jasotzen, ingudean eta banakako pentatloian, eta sasoiari daudenei, bide horretatik Mendibil eta Urko mendietara igotzeko gonbita egin die. Inguru horretan dago Arteta ermita ere: "Hamaika istorio entzun ditugu ermita honen inguruan, gure arbasoek festa egiten zutelako bertan. Hala ere, gaur egun horma batzuk baino ez dira geratzen".



**KARMELE GISASOLA** - Herri-kirolaria



**"Basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du ibilbide honek"**



**MAITE MAIORA** - Korrikalaria



**"Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak"**

## MENDARO - Lizarpe-Gaintxipia

Makina bat aldiz zapal dutako gaina duen arren, beti iruditu zaio berezia Lizarpe ingurua Maite Maiora (Mendaro, 1980) mendiko korrikalariari. Umetako eta nerabazaroko oroitzapen asko hangotxeak ditu, eta gaur ere, sarri egiten du harako bidea, lasaitasun bila. Eguneroko entrenamenduetan maiz igarotzen da Lizarpetik, eta paradoxikoa dirudien arren, hauspoa berotuen daramanean ere hantxe hartu du ohi du arnasa ondoen. "Hango larrea, behorren zintzarriak, amen atzetik jolasean dabiltzan moxalen intziriak, bazka-bazka ari diren ardiaren patxada... Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak (626 metro)".


Ura eta harria da Mendaro, eta horrek egiten ditu bertako parajeak horren berezi. Mendaro Geoparkean sartuta egon ez arren, Geoparkeko kostaldearen ederra begi kolpe batez ikusteko talaia ezin hobea da Gaintxipia mendia. Alde batera, Deba-Zumaia arteko kostaldea, Lastur eta Itziarko mendigainak; beste aldera inguruko mendi-tontor mitikoak: Oiz, Anboto, Erlo, Udalaiz... "Zer ez da ikusten han goitik! Bizi garen lekuan bizitzeagatik, zein zorionekoak garen konturatzeko ere balio du hara igotzeak", dio. Igoera errazeko mendia da Gaintxipia. Mendaroko plazatik 4 kilometro pasatxoko bidea dago errepidez Lizarperaino, eta handik gora, 330 bat metro. Baina mendia aisialdirako duenak eta kilometroak pilotzeko afizioa duenak nekez aukeratu ohi du bide zuzena. Lizarpera zortzi bihurtu bidetik igotzea gustukoagoa du Maiorak. "Bide zoragarria da, Kilimon bailaran barneratzeko".



## MUTRIKU - Burumendi

**A**ndoni Basterretxea (Mutriku, 1964) Delirium Tremens taldeko abeslari eta gitarra-jolea da. 1985. urtean sortu zuen taldea Patxi Irisarri eta J. J. Yurritarekin hirukoa osatuz, eta gerora, Iñigo Muguruza batu zitzaion. Handik aurrera, laukote gisa funtzionatu zuten. 1991n desegin zuten taldea, baina 2019an berriz elkartu ziren, Iñigo Muguruzaren omenezko kontzertu batean parte hartzeko. "Eta, berotu egin ginen", esan du Basterretxeak. "Denok musika jotzen jarraitzeko gogoz geunden, eta kanta berri batzuk sortzea erabaki genuen, disko berria osatzeko". Horrela, 2021ean, taldea desegin eta 30 urtera, eszenatokietara itzuli ziren.

Mutrikun dauka sorlekua taldeak, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko erpinean, Bizkaia-eremuko muga. Iparraldean Bizkaiko golkoa; hegoaldean Mendara; ekialdean Deba; eta mendebaldean Ondarroa, Berriatua eta Markina (Bizkaia) ditu mugakide. Mutrikuk arrantza bere-berea izan du, eta udalerraren armarrian ere arpoiz jotako balea ageri da. Bereziak ditu kaleak, eta bereziak inguruak ere. Hondartza du, eta mendiz inguratuta dago. Basterretxeak Burumendi ingurua du gustukoena, ume-umetatik. Hirugarren hondartza gainean dago, flyscean barnetatuta. "Umetatik gustatzen zait, oso leku berezia da niretzat. Neguan ere txakurra hartuta, sarritan joan nintzen". Pinuak zeuden lehen, baina orain garbituta dago dena, eta bidea ere berrituta dago: "Pretillean eseri eta itsasora begira egotea gustatzen zait, lasai. Oso leku polita da".



### ANDONI BASTERRETXEA - Musikaria



**"Pretillean eseri eta Burumenditik itsasoari begira egotea gustatzen zait"**



### PEDRO LETE - Ibiltaria



**"Ermitak, auzoak, animaliak, landareak eta paisajeak... denetik ikus daiteke"**

## SORALUZE - Lau Baselizen Ibilbidea

**P**edro Lete (Soraluze, 1953) ibiltari askoa da. Ezustekorik ez bada egunero egiten du ibilbide bat, normalean bidegorritik, baina giro ona badago gora, mendira joaten da. Ibiliaz ezagutu ditu ibilbideak. Horietako bat da Lau Baselizen Ibilbidea.

Ibilaldi "oso polita" delako aukeratu du. "Ia lau ordukoa da, baina barruan dago sartuta argazkiak ateratzea gehi paisajeak ikustea", dio Letek.

Ezozoi-bidea da abiapuntua, handik gora hartu eta Ezozoi auzora jo behar baita. "Ezoziko da lehen ermita; hura ikusi eta gero gora segi eta bertan dago San Rokeko ermita. Ondoren, hartu behar da hormigoizko bidea, errepide handiko bidegurutzera iritsi arte. Hor, errepidetik beherantz hartu eta San Andres auzora iritsiko zara; han dago hirugarren ermita. Gero, San Andrestik Txurrukarako bidea hartu behar da, bidegurutzera ailegatu arte; han, berriz, beherantz, Osuma baserrirantz, Txurrukara ailegatu arte. Hantxe dago laugarren ermita: San Inazio. Eta ibilaldia borobiltzeko, Txurruka jatetxean hamarretako edo bazkari ederra egin!".

Pedro Letek esan du familian egiteko moduko ibilaldia dela: "Aldapa dago, baina dena da asfaltoa, ez dago harri artean edo sasi artean ibili beharrik, garbi-garbi dago. Nik urtean bizpahiru bider egiten dut. Urtaro guztietan egin daiteke eta bidean denetik ikus daiteke: katamixarrak, azeriak, kukuak... Landare aldetik ere denetik dago, farmazia bat da: berbenak, milamores edo belar bedeinkatua, pasmo belarra, kukufarakak, teresitak, zaingorria, zentaurea, pasiflora... Etorri eta ikusi".

# AGENDA

## DEBA-ITZIAR

Ekainak 25	22:00	"Olatu arteko txalupa arraroa"	Ikuskizun musikatua eta poesia	Plaza Zaharrean
Uztailak 1	22:00	"TENE"	Bertso saioa	Plaza Zaharrean
Uztailak 2	19:30	Debako Musika Banda	Kalejira	Herriko kaleetan zehar
Uztailak 6-10	-----	Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 8	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uztailak 9	22:00	Aitzuri Abesbatza	Kontzertua	Elizako klaustroan
Uztailak 15	22:00	"GenEroa"	Dantza ikuskizuna	Plaza Zaharrean
Uztailak 22	22:00	Habi	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Uztailak 29	22:00	"Album"	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 30	23:00	Musika Banda	Dantzaldia	Foruen plazan
Abuztuak 6-10	-----	Itziarko Kopraixak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 13	-----	Deba-Reus topaketa	Herrialde katalanetako ekimen kulturalak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18	-----	San Roke jaiak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar

## EIBAR

Ekainak 28-30	22:30	Ikus-entzunezkoen astea	-----	San Andres elizako klaustroan
Uztailak 3	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 8	22:00	Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 8-10	-----	Amaña auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10	-----	Lambretta Eibar XVII Topaketa	-----	-----
Uztailak 10	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	Amaña auzoan
Uztailak 15	23:00	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 15-17	-----	San Kristobal auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 4-11-18-25	22:00	Zinema kalean	Zinema	Untzagan
Abuztuak 6	-----	San Salvador jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Azitain auzoan

## ELGOIBAR

Ekainak 24	19:00	Nahaste Borraste kirol proba	-----	Kalegoen plazan
Ekainak 25	09:00	Nekazari eta ganadu feria	-----	Kalebarren plazan
Ekainak 28,29,1,2	-----	San Pedroko jaiak	Ekimen ezberdinak	Idotorben
Uztailak 8-10	-----	Urazandiko jaiak	Ekimen ezberdinak	Urazandi auzoan
Uztailak 8	22:30	'Elkano, lehen mundu bira'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 9	22:30	'Padre no hay más que uno'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 15	22:30	'Wonder woman 1984'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 16	22:30	'Corre como una chica'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 22	18:00	Folklore jaialdia	Dantzaldia	Maalako parkean
Uztailak 23	22:30	'La pequeña Suiza'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 24	10:30	Pilota txapelketa	Kirola	Sigma auzoan
Uztailak 24	-----	Sargoateko erromeria	Erronomia	Sargoaten
Uztailak 29	22:30	'Greenland: el último refugio'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 30	22:30	'Agur Etxebeste'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Abuztuak 3	-----	Santumotz Eguna	-----	Santumotz lautadan
Abuztuak 6	-----	Sallobenteko jaiak	Ekintzak egunean zehar	Sallobenten
Abuztuak 10	-----	San Lorentzo Eguna	Meza	Sallobenten
Abuztuak 16	-----	San Roke Eguna	-----	Azkue auzoan
Abuztuak 23-28	-----	San Bartolome jaiak	Herriko jai nagusiak	Herri osoan zehar
Irailak 2	-----	San Antolin Eguna	Arriaga auzoko festak	Arriaga auzoan

**ERMUA**

Uztailak 2	-----	Afrika-Ermua V. Jardunaldiak	Hainbat ekitaldi	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 7-10	-----	San Lorenzo auzoko jaiak	Hainbat ekitaldi	San Lorenzo auzoan
Uztailak 8-9	-----	Neska gazteen II. Topaketak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 15	17:30	Zirika Zirkus	Ikuskizuna	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	23:30	Skakeitan	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 18	22:30	Rafa Rueda	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 19	22:30	Petti	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 23	22:30	La Oreja de Van Gogh	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 24-27	-----	Ermuko Santixau jaiak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Abuztuak 1	22:00	'Jojo Rabbit'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 2	22:00	'Explota Explota'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 3	22:00	'Space jam. Aro berria'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 8	22:00	'La boda de Rosa'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 10	22:00	'Jungle Cruise'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 17	22:00	'Cuñados'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 22	22:00	'Errementari'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 24	22:00	'A todo tren'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan

**MALLABIA**

Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Herriko txoko ezberdinetan
----------------	-------	------------------	-------------------	----------------------------

**MENDARO**

Uztailak 2	16:00	Jabier Ezenarro Oroitzarrea	Txirindularitza	-----
Uztailak 8	19:00	Gararock jaialdia	Aurkezpen kontzertua	Santa Kruzkuako parkean, Azpilgoetan
Uztailak 22-26	-----	Santa Ana jaiak	-----	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	-----	-----

**MUTRIKU**

Uztailak 1-3	-----	Elkano Mundubira	-----	-----
Uztailak 2	22:00	Herriko elkarten kontzertua	-----	Plazan
Uztailak 2	-----	Mutrikuko Bandera	-----	-----
Uztailak 16	-----	Merkatu txikia eta atun errea	-----	-----
Uztailak 16	22:00	Anaiarte abesbatzaren kontzertua	-----	-----
Uztailak 21-25	-----	Malen jaiak	Ekimen ezberdinak	Herrian zehar
Uztailak 30	22:00	Kantu bat gara	-----	-----
Abuztuak 3	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 10	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 17	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 6	22:00	Neomak	-----	-----

**SORALUZE**

Uztailak 9-11	-----	San Andreseko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 22-26	-----	Soraluzeko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	10:00	Dolmenen ibilbidea	Bisita gidatua	Karakaten

# Turismo etikoa Debabarrenean



- Arriola Txiki (Deba-Itziar)
- Begi Bistan
- Belaustegi Baserria (Elgoibar)
- Debabarrena Turismo
- Debako Turismo Bulegoa
- Eibarrooms Auto Check-In (Eibar)
- Endañeta Berri (Deba-Itziar)
- Euskal Kostaldeko Geoparkea
- Hotel Arbe (Mutriku)
- Mérida Ostua (Ermua)
- Mutrikuko Turismo Bulegoa
- Txurruka Jatetxea (Soraluze)
- Hotel Kanala (Deba-Itziar)
- Perlakua Saka (Deba-Itziar)
- Txindurri Iturri (Deba-Itziar)
- Zubeltzu Torre (Deba-Itziar)
- Zumardi (Deba)

Euskadiko Kode Etikoaren bueltan jasotako prestakuntza eta konpromiso ibilbidea osatu duten turismo eragileei Kode Etikoaren zigilua eman die Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 530 enpresak eta erakundek jaso dute aitortza 2020an kode hau sortu zutenetik, eta horien artean Debabarreneko hamazazpi enpresa eta erakunde daude.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa Turismorako Munduko Kode Etikoaren egokitzapena da, gure kulturaren eta nortasunaren berezko ezaugarrietan oinarrituta eta 2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarriko 17 Helburuetan oinarrituta.



**BELAUSTEGI**  
— BASERRIA —





SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR

943 74 31 02

[WWW.BELAUSTEGI.COM](http://WWW.BELAUSTEGI.COM)

## Herritarron sormen-emaritik edateko prest, Iturri Ondoan

Bost ostiral eta beste hainbeste kultur ekimen dakartzaz aurtengo Iturri Ondoan egitasmoaren programazioak. Euskal kultura sustatzea helburu duen egitasmoa uztailaren 1etik 29ra egingo da aurtengoa.

Uztaileko ostiral gauetan izango dira emanaldiak, 22:00etan guztiak ere, eta, kokalekuari dagokionez, aurreko bi urteetan osasun-egoerak hala behartuta beste gune batzuetan egin bazen ere, jatorrizko lekura itzuliko da, hau da, Plaza Zaharreko iturri ondora.

Bederatzigarren edizioa du aurtengo hau, eta hainbat diziplinatako saioak izango dira ikusgai: bertsolaritza, literatura, antzerkia, dantza eta musika.

Aritz Larrañaga kultura zinegotziak azaldu duenez, "aurtengoan gazteen sorkuntzari eta emakumeei leku berezia eman nahi izan diegu". Amaia Zinkunegi euskara teknikariaren esanetan, berriz, "aprobetxatu dugu herrian daukagun ondarea, orain arte deskubritu gabe daukaguna argitara emateko".

Hilaren 1ean, Tene Mujika gogoan hartuta egingo den *Tene Mujika eta bere belaunaldiko emakume ekintzaileak* izenburuko bertso-saioarekin emango zaio hasiera egitarauari. Izan ere, Debako Udala hainbat ekimen egiten ari da Mujikaren irudia lantzeko, hura hil zeneko 40. urteurrenean. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Alaia Martin eta Nerea Ibarzabal arituko dira bertsoetan, Amaia Agirre gai-jartzailearen esanetara -Araitz Bizkai eta Gari Otamendi musikariak izango dituzte aldamenean saioan-.

Hurrengo ostiralean, ekainaren 8koan, *Begiradak* ikuskizuna eskainiko da, herritarren ekimenez aurrera ateratzen den ekitaldia, ikus-entzunezkoak, literatura eta musika uztartuz. Iturri Ondoan-en eskutik, betiko moduan, bederatzigarrenez datorkigu aurten ikuskizuna, irudi bakoitzaren gainean pausatutako




zenbait herritarren begirada desberdinak plazaratzera. Herriko 11 irudigilek eta 13 idazlek hartuko dute parte aurtengo saioan.

Dantzak hartuko du iturri ondoan *genEroa* ikuskizunarekin, uztailaren 15ean. Kimua dantza kolektiboko sei dantzari eta Ekaitz Goikoetxea bertsolari eta idazlea izango dira taula gainean, "genero-ikuspegiaren inguruko lanketa, originala bezain berritzailea" eskainiz.

Ekainaren 22an, berriz, musika-kontzertua eskainiko du Habi osatzen duen bikoteak. Post-rock, grunge, stoner eta pop melodiak nahasten ditu 2018an sortutako taldeak.

Ekimenei amaiera emateko, ekainaren 29an, antzerkia izango da protagonista. *Album* lanarekin gazteak datozkigu oholtza gainera gazteez mintzatzera, hots, beren buruez; gazteentzako zein helduentzako Formol Laborategiak sortutako antzezlanak aurkeztuko dute.

Aritz Larrañagak, halaber, ekimenaren izaera herritarra nabarmendu du: "Iturri Ondoan herritarrek egiten dute, bai haien kultur ekarpenekin, eta baita ikus-entzule moduan parte hartzen ere. Debako Udalak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei eta aurten ere parte hartzera gonbidatu".



## Olatu arteko txalupa arraroa aurkeztuko dute Joseba Sarrionandíak eta Ines Osinagak

Musika eta literatura uztartzen dituen emanaldia eskainiko dute Ines Osinagak eta Joseba Sarrionandíak Deban, ekainaren 25ean (larunbata), 22:00etan, Plaza Zaharrean. Ez da sarrerarik erosi behar berataratu ahal izateko.

80 minutu inguru irauten duen ikuskizuna osatzen duten letrak Kuban sortu zituen Sarrionandíak, duela ia hamar urte. Hitzei musika jarri zien Gose taldeko Osinagak eta *Gosariak* izenburuko proiektua gauzatu zuten. Orain, idazlea Euskal Herrian dela, letra horien jatorria

eta zergatia azalduko ditu Osinagaren musikaz lagunduta.

*Olatu arteko txalupa arraroa* emanaldiak dozena bat testu biltzen ditu eta "bidaia luzeko kantuak dira, edo, hobeto esanda, kantuak dira bidaia", sortzaileen esanetan. Izan ere, Habanan sortutako testuek Atlantikoa zeharkatu zuten eta Euskal Herrira heldu ziren, "eskuz esku, konplizez konplize, sekretu bat konpartitzen dutenen artean sortzen den zirrara hori lagun. Amaia Apaolaza zegoen artean, bere hutsunea utzi zuen".

**EKAINAK 25, LARUNBATA**

-11:00. **Bisita gidatua:** *Lastur familiar.*  
Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).  
-22:00. **Emanaldia:** *Olatu arteko txalupa arra-roa.* Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia, Plaza Zaharrear.

**EKAINAK 26, IGANDEA**

-19:00. **Zinema:** *Por ser mujer,* Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

**EKAINAK 27, ASTELEHENA**

-16:00. **Bisita gidatua:** *Gotikoaren altxorra Deban.* Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**EKAINAK 28, ASTEARTEA**

-22:00. **Zahagi-erretzea,** Plaza Zaharrear.

**UZTAILAK 1, OSTIRALA**

-19:00. **Guraso-bilera** Kolorez Blai euskal udalekuen inguruan, Kultur Elkartean.

-19:00. *“Ur (h)ondoan garden”,* Cárdenas pasealekuan.

-22:00. **Iturri Ondoan:** bertso-saioa, Tene Mujika gogoan, Plaza Zaharrear.

**UZTAILAK 2, LARUNBATA**

-9:00-13:00. **Merkatu Txikia,** estalitako pasealekuan.  
-19:30. **Debako Musika Bandaren kalejira,** herriko kaleetan zehar.

**UZTAILAK 4, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea,** plazan.

**UZTAILAK 4-5-6-7-8**

-Elkano Itsas Herria Deba eta Itziarren (zeharkaldi kulturala euskal kostaldean).

**UZTAILAK 8, OSTIRALA**

-22:00. **Iturri Ondoan:** *Begiradak,* Plaza Zaharrear.

**UZTAILAK 9, LARUNBATA**

-20:00. **Aitzuri abesbatzaren kontzertua,** elizako klaustroan.

**UZTAILAK 10, IGANDEA**

-Flysch Beltza igeriketa txapelketa.

**UZTAILAK 15, OSTIRALA**

-10:30. **Bisita gidatua:** *Marearteke zabalgunea.* Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).  
-22:00. **Iturri Ondoan:** *genEroa* dantza-ikus-kizuna, Kimua kolektiboa eta Ekaitz Goikoetxearen eskutik, Plaza Zaharrear.

**UZTAILAK 16, LARUNBATA**

-20:00. **Nazioarteko Flysch Organo Kontzertua,** Santa Maria elizan.

**UZTAILAK 18, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea,** Foruen plazan.

**LGTBI Harrotasunaren Eguna**

-10:00-13:00. Haur eta gaztetxoentzako taile-rrak, Kolore Anitzen eskutik (txapak egiteko txokoa, aurpegi margoketa, LGTBI murala eta marrazketa txokoa), Foruen plazan.  
-18:00. **Debako kontalariak,** Kultur Elkartean.  
-19:00. **Elkarretaratzea,** Foruen plazan.

**Gure Giro**

-Uztailaren 3tik 30era, kultur ekimenez osatutako egitaraua (informazio gehiagorako: aldizkariko 14, 15 eta 16. orriak).  
Bisita gidatuetan eta yoga-saioan parte hartzeko aurrez eman behar da izena: [labur.eus/guregiro2022](http://labur.eus/guregiro2022).

**Liburutegi eta Turismo bulegoko ordutegia**

-**Udal liburutegia:** helduena (9:00-14:00); haur/gazteena (2-6 urte bitartekoak: 10:00-11:00; 7-15 bitartekoak: 10:00-13:00).  
-**Turismo bulegoa:** astelehenetik larunbatara: 10:00-15:00/16:00-19:00; igande eta jaiegunak: 10:00-14:00.



**ZAINZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: ekainak 27, 28, 29, 30,  
uztailak 15, 16, 17.

Burgoa Zuazo: uztailak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.  
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

**DEBAKO BOTIKAK**

ZALDUEGI | 669 262 201  
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

**Larunbat goizetan beti bat irekita:**

ZALDUEGI: ekainak 25 / uztailak 16 eta 23  
BURGOA ZUAZO: uztailak 2 eta 9



**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12



Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com  
20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

**Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia**

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

# Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

# ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

# ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00


ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU  
Behoko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak  
@adatsileak

## ITURLAN, S.L.

Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfnoa - Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com



# Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# sasoiiko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14

943 19 24 42

sasoiiko@hotmail.com

## GENOVEVA

Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

LIZ.-ZK.: 3

## TaxiAlain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008  
alain@taxideba.eus

## Seven Clovers

Irish pub

943 191 295

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

janire & maitane  
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com



Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, bestelako espezialitateak



## BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA



### Zuzeneko salmenta ohiko ordutegia

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00. Larunbata: 10:00-13:00.

### Udako ordutegia (ekainak 17tik, irailak 16arte)

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00.

Larunbata: 10:00-13:00.



### Sarean erosi:

[www.yurritagastronomika.com](http://www.yurritagastronomika.com)

sarean edota dendan erosteagatik  
**% 10eko deskontua**  
kupoi hau aurkeztuz



### FABRIKAKO PREZIOETAN

50€tik gorako erosketetan  
%10eko deskontua egingo da  
apirilean zehar.



### ETXERA BIDALIKO DIZUGU

Ondorengo kupoia sartu online  
erosketa egitean: BERRIKETAN  
(irailak 16 arte erabilgarria).